





FUNDACIÓN
ITURRIAGA
DAÑOBEITIA
FUNDAZIOA

50 URTE
nekazaritzaren eta
baserriaren zerbitzura



FUNDACIÓN
ITURRIAGA
DANÑOBEITIA
FUNDAZIOA

50 URTE
nekazaritzaren eta
baserriaren zerbitzura



1.HITZA
URREA.P3

2.SARRERA.P4

3.MARYREN
BIOGRAFIA LABURRA .P5

4.FUNDAZIOAREN SORRERAKO ESPARRU
SOZIOEKONOMIKOA .P6

50 urte nekazaritzaren eta baserriaren zerbitzura.

5.ONDAREA NEKAZARITZA
LURRAREN ZERBITZURA .P7

6.FUNDAZIOAREN UNE
GARRANTZITSUAK .P8

7.EUSKAL BASERRIA, MIREN ETXEZARRETAREN
IKERKETA XEDE .P9

8.FUNDAZIOA, URRATSEZ
URRATS .P10

9.LEKUKOTASUNAK.P11

10.FUNDAZIOAREN
ETORKIZUNA .P12

Amari eta senide guztiei



ESKER ONAK

Lan txiki honek Iturriaga Dañobeitia Fundazioaren historiaren berri eman nahi du haren berrogeita hamargarren urteurrenean. Gainera, bide batez, haren sustatzaileari omenaldia egin nahi diogu: Maryri.

Datuak, esperientziak, bizipenak eta lekukotasunak bildu ditugu, eta zuzena da lan horretan lagundu diguten pertsonei eskerrak ematea: Dunixi Gabiñari, José Mari Zeberiori eta Fundazioaren testigantza eman duten guztiei..., inor ere alde batera utzi gabe.

Gainera, Alberto García Sanzek egindako lan estatistikoa eta Nekane Zeberio kazetariaren datu-bilketa sakona ere eskertzekoak dira.

Haien guztien laguntzarik gabe, lan hau ez litzateke osatuta egongo. Lan honek bere harri-koskorra ekarri nahi du Euskal Herriko nekazaritza-historian, lehen sektoreari beti lagundu dion Fundazio baten ikuspegitik.

Beraz, eskerrik asko pertsona horiei guztiei.



MARY

María Francisca Iturriaga Dañobeitia
Mary izan zen beti bere senide eta lagunentzat. 1912ko urtarrilaren 22an jaio zen, Erandion.

Mary bereziki interesatu zen beti baserritar familiez eta haien etorkizunaz. Hori dela eta, gurasoek oinordetzan utzitako ondarearen zati handi bat erabilia, fundazio bat sortu zuen. Orobat, alkoholikoak eta gaixo psikikoak osatzea ere haren kezketako bat izan zen.

Bere konpromiso pertsonalean, asko jorratu zuen elkartasuna, eta premia-egoeran zeuden kolektiboei eta herrialdeei laguntzeko lan egin zuen. Eta bere ahalegin guztiak egin zituen jarduera horietan.




JUAN

Juan Escobal Maryren garaiko barakaldotar bat zen, lanbidez albaitaria, Mungiako eskualdean jardun izan zuena. Gizon hurbila zen, eta eskualdeko abeltzainek asko estimatzen zuten.

1965ean, Maryk eskatuta, Fundazioko Patronatuko Batzordeko presidentea izan zen. 1996an utzi zuen kargua, adina dela medio.

Hogeita hamar urtez baino gehiagoz izan zen presidentea, eta denbora hartan, sormenez, ekimenez, eskuzabal eta errealismoz jokatu zuen, baita Fundazioarekiko eta Bizkaiko nekazaritzarekiko konpromiso handiz ere.




· 01 ·

FUNDACIÓN ITURRIAGA DAÑOBEITIA FUNDAZIOA

Sasoiko baserritarrak bitarteko gutxirekin aho asko elikatzeko helburuarekin borrokatzen ziren.

HITZA
URREA



· 02 ·

FUNDACIÓN ITURRIAGA DAÑOBEITIA FUNDAZIOA

Fundazioa euskadiko nekazaritzarentzat oso garrantzitsuak ziren garai eta egoera batean sortu zen.

SARRERA





MARYREN BIOGRAFIA LABURRA

María Francisca Iturriaga Dañobeitia, Mary, Erandion jaio zen 1912ko urtarrilaren 22an. Aita Laukizko armadorea zen, eta ama, Loiuko baserritarra.

XX. mendearen hasieran, Bilboko jarduera ekonomikoari eta itsas trafikoari esker, Maryren aitak, Cándido Iturriagak, ondare higiezin lortu zuen, Txorierrin eta Mungialdean maizterrak bota nahi zituzten jabeei baserriak erosiz. Cándido jaunaren helburua baserri haien erabiltzaile historikoek euren jarraitzea zen.

Familia aberats eta aldi berean solidario batean hazi zen Mary. Jainkozalea zen, egoerarik larrienean zeudenei laguntzen zien, eta konpromiso politikoa zuen euskararekin eta EAJko Euskal Emakume Batzarekin; izan ere, elkarte horretako idazkaria izan zen Bilbon, 1936ko gerraren aurretik. Gerra piztu zenean, Frantziara erbesteratu zen, eta ondoren, Belgikara. Bruselan, gizarte-laguntzaile gisa zeukan prestakuntzari esker, laguntza ordainezina eman ahal izan zion herrialde haietako euskal diasporari.

1946an, aita gaixotu eta hil egin zen. Mary, bihozmin handiz, ezin izan zen azken egun haietan aitaren ondoan izan.

Erbestean, Mary harremanetan zegoen langile eta baztertuekiko konpromiso handia zuten zenbait elkartetako (JOC, HOAC, etab.) gazte katolikoekin. Errebeldia inkonformista baina eraikitzailea zuen.

Euskadira itzuli zenean, Irungo Palmera fabrikan egin zuen behar (1957. eta 1958. urteetan), eta langile- eta kristau-giroetan mugitu zen; baztertu eta babesgabeei laguntzeko ahalegin berezia egin zuen. Urte haietan, alkoholikoak eta gaixo psikikoak osatzeko erdibideko etxeak interesatu zitzaizkion.

Ama 1962an hil zenean, eta ahizpak eta berak aitaren oinordetzan zegozkien ondasunak berreskuratu ondoren, gerora Fundazioa izango zena lantzen hasi zen.

Gainera, Mary izugarri arduratzen zen gizarte, ekonomia, kultura eta politika alorretako arazoez, irtenbideak bilatze aldera. Era berean, lankidetzan jarduten zuen etengabe, Hegoaldeko herrialdeetako pobreziaren eta marjinazioaren aurka.

Maryren ezaugarriak zorroztasuna, eskuzabaltasuna, iraunkortasuna eta irmotasuna ziren, eta sutsu egiten zien aurre erronkei.



· 04 ·

FUNDACIÓN ITURRIAGA DAÑOBEITIA FUNDAZIOA

Baserriaren etorkizuna zalantzaz beteta zegoen.

FUNDAZIOAREN SORRERAKO ESPARRU
SOZIOEKONOMIKOA

FUNDAZIOAREN SORRERAKO ESPARRU
SOZIOEKONOMIKOA

Iturriaga Dañobeitia Fundazioa 1960ko hamarkadaren erdialdean sortu zen. Garai hartan, hainbat aldaketa gertatu ziren oso denbora laburrean, eta Euskadiko gizartea eta ekonomia goitik behera aldatu ziren.

Gerraosteko urteak igaro ziren, eta XX. mendearen erdialdetik aurrera, industrializazio-prozesu txiki bat hasi zen –Euskadin eta Katalunian, gehienbat–, eta enpresak eratu ziren produkzioaren adar guztietan; Euskadiri dagokionez, enpresa gehienak metalurgiaren arloan sortu ziren.

Lehen sektoreak ahal zuen bezala jarraitzen zuen, baserritarrek produkzio dibertsifikatua –nekazaritza eta abeltzaintza– zutelako; horri esker, gutxieneko errentak lortzen zituzten familia-gunea mantentzeko. Baina lehenago esan bezala: ekonomia ahula zen.

Dena den, maiorazkoaren tradizioa dela eta, seme zaharrenak baserrietan geratzen ziren, eta baserritarren familien belaunaldi gazteek hirira, hiriguneetara edo beste herrialde batzuetara emigratu behar izan zuten.

Baserri tradizionalaren oinarrizko funtzioa familiaren beharrianak asetzea zen, hau da, ezinbesteko elikagaiak ematea. Egia esan, autohornikuntza-egoera bat zen: jateko produzitzea eta produzitutakoa jatea. Sobratzen zitzaien apurra beste premia batzuk asetzeko erabiltzen zuten, hala nola hezkuntza, osasuna, jantzia eta abar.

Iraupen-ekonomia zen, beraz, baserri familiar tradizionalen ekonomia-sistema nagusia. Familiako kide guztiak ustiategiko langileak ziren, arduraldi handiagoz edo txikiagoz; eta ustiategiko burua, familiaren burua eta lurretako burua pertsona bera zen beti: leinuko aita edo aitita.

1960ko hamarkadaren hasieratik aurrera, aldaketa estruktural sakonak gertatu ziren gure gizartean –aurreago azaldu dugunez–, eta horrek izugarrizko eragina izan zuen lehen sektore ahulean.

Baserriak, milaka urteko kultura baten ikurrak, zalantzaz jositako etorkizun bati egin behar zion aurre. Landa-idiosinkrasiak, zenbait mendetako iraupena zuenak, behea jo zezakeen hamarkada gutxian. Egia esan, aurreko garaietan ere berrikuntzak jazo ziren: itsasora joatea, burdinolak, etab. Dena dela, horiek ez zuten landa-itxura nabarmen aldatu. Orain, berriz, baserria atzeraldi handi batean sartzen ari zen.

Oro har, sektorearen egitura beste zailtasun bat zen. Ustiategi gehienak oso sakabanatuta zeuden eta txikiak ziren, eta biztanleria landuna adinekoa zen; ezaugarri horiek beste eragozpen bat ziren baserria berritzeko, arrazionalizatzeko eta modernizatzeko.

Industriak eskulan asko eskatu eta, gainera, lan-baldintza onak eskaintzen zituen; horren ondorioz, baserri askok ez zuten belaunaldi-ordezkapenik izan, eta bertan behera geratu ziren.

ELKARTEGINTZA

Testuinguru horretan, gazte-elkarteak sortzen hasi ziren apurka-apurka Gipuzkoan, Ekintza Katolikoak sustatuta, eta Balentin Zamora apaizaren eskutik. Ekimen hori Bizkaira hedatu zen, Markinako Lanbide Eskolako buru zen Julián Olazabalagak bultzatuta.

Esate baterako, Baserri Gaztedia sortu zen Bizkaian, Ander Manterolaren eskutik, Markinako eta inguruko gazteak trebatzeko; ikastaro eta bilerak egiten zituzten Gipuzkoako zenbait herritan, ordurako lurralde hartan horrelako ekimenak martxan baitzeuden.

Elkarteak Bizkaian egindako lehen jarduera Begoñan ikastaro bat antolatzea izan zen. Bizkaiko zenbait herritako gazteak elkartu ziren ikastaro hartan. Balentin Zamora apaizak, Gipuzkoan elkartegintza sustatu zuenak, ekimena koordinatu zuen.

1967. urtean, nekazaritza-mugimendua Mungia, Gernika, Lea Artibai, Arratia eta Txorierriko eskualdeetara hedatuta zegoen. Baserri Gaztedi izena izan zuen mugimenduak; eta geroago, Erri Gaztedia deitu zioten.

Beharbada mugimendu horien ondorioz, behi-esnearen lehen komunitate-ustiategiak sortu ziren Euskadin apurka-apurka. Horrenbestez, familia bakar baten jabetzako baserri tradizionalaren irudia aldatu egin zen. Eta baserria eta produkzioa bereizi zirenez gero, eraikina etxebizitza gisa erabiltzen hasi ziren. Formula berri horri esker, landa-mundua modernizatu eta duin bihurtu ahal izan zen.

Antolatzeko modu horrek begi-bistako alde onak zituen: makinak eta teknika berriak ezin hobe erabiltzea, produkzioa handitzea eta kalitatea hobetzea.

Gainera, baldintza hobeak lortzen zituzten makina modernoak erosteko, eta lur-azalera handiagoak erabil zitzaketen.

Antolaketa-dinamika horrek agerian jarri zuen jende asko kontzientziatuta zegoela baserrietako gazteen eta, orokorrean, landa-munduaren arazoeikiko. Urte haietan, prestakuntza eman zitzairen hainbat gazteri, elkarlanean aritzeko elkarteak sortu ziren, eta lehen sektorearen arazoak aztertu ziren, konponbideak bilatu guran.

Egia esan, lehen sektoreak ezin zuen bere horretan jarraitu, industria- eta zerbitzu-sektorearen hasiera bizkor horren aurrean, beretzat hartzen baitzuen zetorkion eskulan osoa. Nekazaritza-laboreetarako azalera txikitu egin zen, eta jakina, larre eta basoetarako azalera handitu. Azken finean, ustiategiak sakabanatuta zeudenez eta tamaina txikikoak zirenez, eta biztanleria aktiboa gero eta zaharragoa zenez, gainbehera hori oso azkar gertatu zen.

Baserria utzi eta fabrika lanean hastean, gazteek jarduera eroso, egonkor eta seguruagoa egiten zuten baserriko lan gogorraren orde. Zenbait kasutan, tarteko urrats bat egon zen prozesuan: batzuk baserrian bizi ziren industrian lanean zeuden bitartean, eta nekazaritza-jarduera txiki bat egiten zuten. Horren guztiaren ondorioz, herri txikiek biztanle asko galdu zituzten, herri ertainetara eta hirietara joan baitziren.

Egoera zein zen ikusita, esan dezakegu baserriaren arazoak ez zirela biztanleria-kantitatea eta errentagarritasuna soilik, indarrez sortzen ari zen zerbait baizik: gizarte-arazotzat defini dezakegun zerbait. Hori dela eta, baserriak bazterkeria eta pobrezia horiek gainditu, eta bere nortasuna sendotu behar zuen.

Hala ere, eredu horrek, nahiz eta paperean oso egokia izan, porrot egin zuen kasu gehienetan, oinarritzat hartu ziren baldintzak idilikoegiak eta borondatetsuegiak baitziren, aurreko eredia guztiz banakakoa zela kontuan hartuta.

I EUSKARAREN ETA EUSKAL KULTURAREN KONFINAMENDUA I

Baserriaren gainbeheraren ondorio guztiak ez ziren ekonomikoak eta sozialak izan. Gertatutako industrializazio bizkorrak eta hizkuntza-errepresio bortitzak kulturaren gainbehera ere berekin ekarri zuten. Euskal hizkuntzak eta kultura-ondarearen zati handi batek atzerapen nabarmena izan zuten. Hona hemen horren kausa batzuk: faktore politikoak, immigrazioa eta euskaldunen hizkuntza-komunitatearen desagituraketa. Euskaldun askok albo batera utzi zuten euren ama-hizkuntza, eta gaztelania erabiltzen hasi ziren, komunikazio-hizkuntza funtzional gisa.

Errepresioa, bazterkeria, gizarte-presioa eta desagituraketa zeuden. Gainera, gaztelania modernizazioarekin lotzen zuten, prozesu programatu batean, eta euskara, berriz, landa-munduarekin eta iraganarekin. Gauzak horrela, euskal hizkuntza familia-, landa- eta folklore-esparruetara mugatuta geratu zen, besteak beste.

Hain zuzen, euskara betidanik lotu da landa-giroarekin, eta industrializazioak aldaketa handia eragin zuen. Euskarak bizimodu horretara egokitu behar zuen, ordura arte izandakoa izaten jarraitzeko: komunikazio-tresna bat.

Garai hartako pertsonak erronka handia zeukaten: euren euskal nortasuna industria-bizimodura egokitzea eta hizkuntzaren iraupena bermatzea. Hitz gutxitan, euskara landa- eta folklore-ingurunetik erreskatatu behar zen, eta horretarako, hizkuntzaren normalizazio-plan bat egin zen. Euskaltzaindia -euskara batuaren alde egindako apustuarekin- bat zetorren euskara indartzeko eta normalizatzeko desio haiekin.

Hirurogeiko hamarkadan, beste gune txiki baina aktibo batzuek, errealitatearen jakinaren gainean, euskara bere egoera ahuletik ateratzeko hainbat mugimendu eta ekimen sustatu zituzten, normalizaziora eta modernizaziora bideratzeko. Ikastolen mugimendua izan zen aitzindari haien adierazgarri nagusia, beti ere, argitalpen- eta kazetaritza-arloetako ekimenak ahaztu barik.

Hirurogeita hamarreko hamarkadan, Fundazioak, Euskaltzaindiaren bitartez, konpromiso handia izan zuen alfabetatzeko eta hizkuntza normalizatzeko jardueretikiko eta ikastolen mugimenduarekiko, eta ekonomikoki lagundu zuen. Baina hori ez zetorren bat Fundazioaren xedearekin, eta azkenean, laguntzeari utzi zion.

I BASERRIKO EKONOMIAREN BILAKAERA I

Baina, baserriko jarduera ekonomikoari berriro helduta, ikus dezakegu hirurogeiko hamarkadaren amaieran baserritarrak arazo tekniko eta finantzarioak izan zituela sektorea aurrerapenei esker hartzen ari zen dimentsio berriari aurre egiteko.

Baserritarraren giza eta lanbide-prestaketa eskasa zen argi eta garbi, agerian zegoen garapen teknologikora egokitzeko.

Hori dela eta, hirurogeita hamarreko hamarkadaren hasieran, prestakuntza- eta irekitasun-gabezia hori estaltzeko ekimenak sortu ziren Gipuzkoan. Lehenetako bat gau-eskolak izan ziren; oso denbora laburrean, lurralde hartako zenbait eskualdetan sortu ziren. Abeltzaintzari, bazkari, frutikulturari eta abarri buruzko ezaguerak ematen ziren, hau da, baserriko jardueri buruzkoa, baserria enpresatzat hartua. Zabalegi, Beasain eta Tolosan, nekazaritza- eta abeltzaintza-teknikak irakasten ziren, eta giza prestakuntza ematen. Testuinguru hartan, Lurgintza sortu zen, Balentin Zamora apaizak, Gipuzkoako nekazaritzaren modernizazioaren sustatzaileak, sortutako nekazaritza-kooperatiba.

Ekintza horiek guztiek euren fruituak eman zituzten, eta 1973rako, abeltzaintza-jarduera merkatu-ekonomiaren barruan zegoen.

ONDAREA NEKAZARITZAREN ETA
ABELTZAINITZAREN ZERBITZURA

Fundazioa sortu zenean, ondare handia zeukan, Maryk bere gurasoek utzitako jaraunspenetik jasotako Txorierriko eta Mungialdeko baserri batzuk dohaintzan eman baitzizkion. Hasierako kapitalerako, Asuako haraneko desjabetzeetatik kobratutako dirua eta Mungian, 1971n, Laukariz golf-klubari baserri bat saltzeagatik lortutakoa erabili zen. Ez da oso istorio ezaguna, baina oso interesgarria da. Bizkaiko hiriburuko Udalak, Pilar Careaga alkate zela, Bilbo Handia Asuako haranerantz hedatzea proposatu zuen.

Horretarako, azalera handia behar zen, eta desjabetzeen bidez lortu zuten. Eta Bilboko Udalaren eta jabeen arteko auzi bat hasi zen; hamar urte iraun zuen.

1977. urtearen erdialdean, egunkariak desjabetzeen gaiaren berri eman zuten. Egiaz, auzi horren barruko hektarea asko Iturriaga familiarenak ziren, eta haien aldeko epaiaren ondorioz, ondare handia berreskuratu zuten, Mungialdeko jabetzez gain.

I

BALIABIDE EKONOMIKOAK

I

Fundazioak baliabide ekonomiko asko erabili zituen lehen sektoreari laguntzeko. Dirua lortzeko, Fundazioak Mungialdeko baserri gehienak saldu zituen. Baserrietako maizter historikoei saldu zizkien, eurentzat oso onak ziren baldintzetan. Era berean, patronoek emankorrak ez ziren lurrak eta ondasun higiezinak saltzea erabaki zuten.

Horrez gain, oraintsu azaldu dugunez, desjabetzeei (Bilboko Udala, Asua...) eta beste baserri batzuk saldu izanari esker ere finantziazioa lortu zuen Fundazioak.

Ondarea. Fundazioak ondasun higiezinaz osatutako ondare handia du. Hasierako 450.000 pezetako kapitalaz gain, Madariaga baserria (Erandio) zeukan, bai eta haren inguruan hektarea batzuk ere.

Telleriondo mendiaren erdiak –hori ere Erandion–, Astobieta, Landesena eta Agirre-Mitxelena baserriek eta Olatxu errota-etxeak (Mungia) beste ekarpen bat osatu zuten. Baserri horiek labore-lurak dituzte inguruan, bai eta, zenbait kasutan, mendiak ere. Hortaz, oso ondare handiaz ari gara. Horri esker, baserritarrak eta teknikariak, lehen sektoreari buruzko adituak, trebatzeko funtsak lortu ziren.



FUNDAZIOAREN UNE GARRANTZITSUAK

1965eko apirilaren 20an, María Francisca Iturriaga Dañobeitiak Luciano Teijeiro Areetako (Getxo) notarioaren bulegora jo zuen, Cándido Iturriaga eta María Dañobeitia Fundazioa sortzeko; gurasoen oroimenez aukeratu zuen izen hori.

Maryk (senideek emandako ezizena) bere ondare- eta finantza-ondasunak erabili nahi zituen, haren ustez Bizkaiko nekazarien produkzioa eta bizi-baldintzak hobetzeko oso interesgarria zen kausa baten zerbitzura.

Fundazioaren bidez, nekazariak, abeltzainak eta, oro har, nekazaritza-ustiapenean aritzen ziren pertsonak prestatu eta sustatu nahi zituen gizabidez, sozialki eta teknikoki, “bai onuradunen egoerara egokitutako nekazaritza-trebakuntza bultzatuz, eta bai, lanbidean erantzukizun handiagoa izanik, haien gizarte-ingurunearen eboluzioa gauzatzen eta nekazarien bizimoduaren alderdi guztiak hobetzen lagunduz ere”. Horrelaxe deskribatzen du 5. artikulua Fundazioaren xede nagusia.

“Sortu zenetik, Fundazioaren xede nagusia izan da nekazariak, abeltzainak eta, orokorrean, nekazaritza-ustiapenean aritzen diren pertsona guztiak prestatzea eta sustatzea, gizabidez, sozialki eta teknikoki. Horretarako, onuradunen egoerara egokitutako nekazaritza-trebakuntza bultzatu du, eta, haien lanbidean erantzukizun handiagoa izanik, gizarte-ingurunearen bilakaera gauzatzen eta nekazarien bizimoduaren alderdi guztiak hobetzen lagundu die (Fundazioaren Estatutuak).



Gerora, Iturriaga Dañobeitia Fundazioa esan zitzaien. Erakunde misto gisa sortu zen (ongintza- eta irakaskuntza-erakundea baitzen). Erakunde partikularra eta iraunkorra da, eta nortasun juridiko propioa eta jarduteko gaitasuna ditu. Helbidea Asua-Erandion du.

Formalismo legal eta juridikoak alde batera utzita, Maryk nekazarien, abeltzainen eta, oro har, lehen sektorean lan egiten zutenen prestakuntza eta promozioa –gizabidezkoa, soziala eta tekniko– sustatzea zuen helburu. Azken helburua nekazarien bizimoduaren alderdi guztiak hobetzen laguntzea zen. Eta horretan ahalegindu zen Mary bere bizitza osoan.

Ez dago esan beharrik nekazaritza- eta abeltzaintza-arloak onura ugari lortu zituela Fundazioak prestakuntzan, ikerketan eta elkartegintzaren sustapenean egin zituen ekintzei esker. Hiru arlo horiek ziren, eta dira, Fundazioaren ekintzaren eta espirituaren ardatzak.

Horren alde egiteko, ekimen aitzindari horren inguruan bildutako pertsona batzuk konbentzitu zituen. Fundazioaren gobernua hamar pertsonaren esku geratu zen; eurentako lau emakumeak ziren. Oso datu esanguratsua da duela berrogeita hamar urteko gizartean.

Fundazioa eratu eta bi hilabetera, Patronatua sortu zen. Mungiako Sollube jatetxea izan zen Patronatuaren lehen biltzarrerako aukeratutako lekua. Hauek zeuden Patronatuan:

- ✿ **Juan Escobal Elexpuru**, albaitaria, Mungiakoa. Presidente.
- ✿ **Bernardo Mesanzas Ruiz de Salas**, Bilboko ingeniari agronomoa. Presidenteordea.
- ✿ **Bittor Kapanaga Elorza**, nekazaritza-teknikaria, Otxandiokoa. Idazkaria.
- ✿ **Teresa Arano**, Meñakako nekazaria. Diruzaina.
- ✿ **Carmen Iturriaga Dañobeitia**, Bilbokoa. Batzordekidea.
- ✿ **María Arrieta**, Mungiako nekazaria. Batzordekidea.
- ✿ **María Francisca Iturriaga Dañobeitia**, gizarte-laguntzailea, Bilbokoa. Batzordekidea.
- ✿ **Dionisio Gabiña Olabarrieta**, ingeniaria, Bilbokoa. Batzordekidea.
- ✿ **Cástor Uriarte Aguirreamalloa**, arkitektoa, Bilbokoa. Batzordekidea.
- ✿ **Pedro Bilbao Zugazaga**, Mungiako nekazaria. Batzordekidea.

Maryren inguruko pertsona onak ziren denak: nekazariak eta nekazaritza-teknikariak, mundu hori ezagutzen zutenak. Eurek guztiek iritzi bera zuten Bizkaiko nekazaritza- eta abeltzaintza-egoerari buruz. Euskadiko baserriaren gainbeheragatik eta euretan bizi zirenen exodoagatik zeuden kezkatuta. Eta denek uste zuten, aho batez, egoera dramatiko horren irtenbideak bilatu behar zirela. Nabarmenezkoa da Juan Escobalen hogeita hamar urtetik gorako lana eta konpromisoa; oso garrantzitsua izan zen Fundazioan.

Fundazioaren historian, Maryren hiru arimak daude beti agerian: baserritarren bizi-kalitatea hobetzera bultzatzen zuena; gazteentzat eta gizartean sustraitzeko arazoak zituzten pertsonentzat irtenbideak ematen zituen; eta euskararen aldekoa.

I

INDUSTRIAREN IMANA

I

Kontuan izan behar da garai hartan industriako langile baten soldata bi aldiz handiagoa zela lehen sektoreko langile batena baino. Hori dela eta, landa-herrietako biztanle askok fabriketara jo zuten.

Baina hori ez zen Euskadin soilik gertatu. Espainian, landa-munduaren gainbehera eta exodoa berrogeiko hamarkadan hasi ziren. Orduan, nekazaritza-biztanleria aktiboa %50etik gorakoa zen. Hamar urte geroago, hiru puntu txikiagoa zen, eta 1970ean, %28koa zen.

Nabaria zen gazteek baserriarekiko zuten interesa izugarri txikitu zela, eta ehunka baserri desagertzeaz izan ziren. Ustiategiak martxan izatea erabaki zuten familiek gabezia larriei aurre egiteko prest egon behar zuten. Hauek ziren gabeziok: produktibitate txikia, mekanizazio eskasa, errentagarritasun txikia, azpiegiturarik eta zerbitzurik eza, atzerapen teknologiko handia, eta baserritarren nekazaritza- eta kudeaketa-prestakuntza eskasa. Azken batean, baserriak goitik behera aldatu behar zuen, irauteko aukerarik izateko.

I

LEHEN EKIMEN ETA PROIEKTUAK

I

Fundazioak ezarritako funtsezko zereginetatik, Euskadiko nekazaritza-arloko gaitzik handienetako bat deuseztatzea zen lehena: baserritarren prestakuntzarik eza.

Hori dela eta, Fundazioaren ibilbideko lehen urteetako aurreneko ekimen eta proiektuak gazteentzako prestakuntzari buruzkoak izan ziren, gazteek lana optimizatu eta landa-esparruan jarrai zezaten.

Baina Fundazioak martxan jarritako lehen ekimena Larrauriko (Mungia) Baserritarren sendiarteko etxea izan zen. Fundazioak eraikin bat alokatu zuen proiektua garatzeko. Nekazaritza- eta abeltzaintza-arloko irakaskuntza eman zitzaien mutilei, eta etxeko ekonomiari eta haurtzaintzari buruzkoak, neskei. Sendiarteko etxeak ekipamendu osoa zeukan: motordun ibilgailuak, tresnak, mahaia, oheak, arropa eta abar, ikasleek erabil zitzaizkien.

Gazteentzako prestakuntzaren ardura Ana Mari Elorriaga, Bittor Kapanaga eta Juan Escobalen esku geratu zen. Mungia Nekazaritza Hedapenaren Agentziaren (Espainiako Nekazaritzako Ministerioko organismoa) lankidetzan izan zuten. Nekazariei prestakuntzaren eta laguntza teknikoaren bidez laguntzeko sortu ziren agentzia horiek.

Baina Sendiarteko etxea proiektuak oztopo handia izan zuen lehen urteetan: ikasleak erakartzeko zailtasuna. Horren ondorioz, Batzordeak eta Maryk berak etxez etxeko bisitak egin behar izan zituzten eskualdeko baserrietara, baina jendeak ez zuen nekazaritzan eta abeltzaintzan behar egiteko gogorik; eragozpen hori ia gaindiezina izan zen. Gazteek industrian edo merkataritzan ikusten zuten euren etorkizuna.

Ikasle gutxi zeudenez, Batzordeak Sendiarteko etxearen bokazio bera zuen leku batera bidali zituen: Julián Olazabalaga apaizak zuzendutako Markinako familia-etxera.

Aldi berean, 1965ean, beste etxe bat sortzea pentsatu zuten, baina, ikaslerik ez zegoenez, ideia hori bertan behera geratu zen. Beste etxe bat sortu ez ezik, Larrauriko sendiarteko etxea itxi behar izan zuten 1969an. Halaber, Mungialdeko baserritarren laguntza-eskaerei erantzuten jarraitu zuen Fundazioak. Sortu ziren nekazaritza-esperimentu berritzaileak sustatu eta diru-laguntzak eman zituen.

Besteak beste, berotegien inguruko ekimen bat bultzatu zuen Mungian. Fundazioak inbertsioaren %60 lagundu zuen diruz, esperimentuaren emaitzei buruzko datuen trukean.

Hirurogeita hamarreko hamarkadaren hasieran, Fundazioak bere lankidetzarekin handitu zuen (besteak beste, Euskaltzaindiarekin jardun zuen elkarlanean), dohainen bidez. Gainera, bere helburuekin lotura handirik ez zuten proiektuak garatzen ere lagundu zuen.

Hona hemen Fundazioaren ekimen handietako bat: hirurogeiko hamarkadaren amaieran Miren Etxezarretari euskal baserriari buruzko ikerketa-lana agindu izana, Euskadiko nekazaritzari eta abeltzaintzari laguntzeko urratsak zuzen bideratze aldera. Horri buruz luze egingo dugu berba hurrengo kapituluan.

Fundazioak beste ikerketa batzuk finantzatu zituen. Haietako batean, Angerseko (Frantzia) Nekazaritzako Goi Mailako Eskolako hiru ikaslek mila biztanletik beherako landa-herri bat aztertu zuten: Garai.

Miren Etxezarretarena berarena izan zen beste bat: plastiko azpiko laboreak Mungian.

1974ko udaberrian, Patronatuko Batzordeak nekazaritzako ikerketari eta esperimentuei buruzko lehen lehiaketa sustatzea erabaki zuen. Bi sari ezarri ziren: bata, ikerketa teorikoak saritzeko, eta bestea, esperimentu praktikoak saritzeko. Bi-biak 50.000 pezetakoak (300 euro) ziren. Askotariko gaiak jorra zitezkeen, beti ere, baserriaren eta Euskadiko nekazaritza eta abeltzaintzaren alderdi sozial, tekniko eta ekonomikoekin lotutakoak. Esperientzia positiboa izan bazen ere, ez zuen espero zen arrakasta lortu, eta bertan behera utzi zuten.

Baina Fundazioak bekak, diru-laguntzak eta laguntzak emateko politikarekin jarraitu zuen, baserritarrei prestakuntza emateko eta euskal nekazaritza-esparrua argitu zezaketen ikerketei laguntzeko.

I ABORNIKANOKO AUZOLANA I	
1969an, prestakuntzarako gazteak erakartzeko porrotaren ondorioz, Fundazioak Israelgo kibutzetan inspiratutako ustiategi pilotu baten proiektuari lagundu zion Abornikano (Koartangoko harana, Araba). Horrela, Auzolana de Abornikano SA sortu zen.	
Proiektu horren helburua zen etorkizuneko nekazaritza-ustiategi baten eredua eta erreferentzia izatea nekazariantzat. Gernikako eta Durangoko eskualdeetako zenbait gaztek bultzatu zuten Auzolana, Kepa Enbeita buru zutela, taldean eta elkarlanean nekazaritza- eta abeltzaintza-ustiategi batez arduratzeko. Fundazioko patronoek proiektuen dibertsifikazioa defendatu zuten beti. Hala ere, Fundazioaren lehen urteetako ahalegin handiena Abornikanoko Auzolanari laguntzeko izan zen, proiektuari berari lotutako zailtasunak eta behar zuen finantziazioa direla eta.	
Patronatuak, lagundu guran, konpromiso handiagoa hartu zuen proiektuarekin: errota-etxe bat eta haren lurrak erosi zituen herri hartan, eta horren usufruktua eman zion Abornikanoko Auzolana nekazaritza-komunitateari.	

Azkenean, sozietatea krisian sartu, eta kide gehienek proiektua utzi zuten. Abel eta Kepa Enbeita anaiak baino ez ziren geratu, eta euren familiak.

1974az geroztik, sozietateak txerri-aziendaren produkzio intentsiboa jarri zuen martxan, eta horretarako instalazioak egin zituen; Fundazioak pabilioi horiek bere izenean erregistratzea onartu zuen. Hori dela eta, IRYDAk (Nekazaritza Erreforma eta Garapenerako Institutua, Nekazaritza Ministerioarena) mailegu bat eman zion Abornikanoko Auzolanari, Fundazioak esku hartu gabe. Era berean, Fundazioak sozietatean zuen partaidetza handitzen jarraitu zuen; hain zuzen, lur gehiago erosi zituen, nekazaritza- eta abeltzaintza-ustiatagia bideragarriagoa izan zedin.

Handik urtebetera, proiektuaren inguruko ezadostasunak areagotuz joan ziren. Batzordeak Auzolanarekin harremanak etetea eta dohain gehiago ez egitea erabaki zuen. Bi urte geroago, 1977ko udazkenean, emandako kredituak berreskuratzen eta harremanak euren onera ekartzen saiatu zen. Baina alferrik izan zen. Proiektuak ez zuen aurrera egin, eta ezarritako helburuak ez zirenez bete, Fundazioak amore eman eta proiektua bertan behera utzi zuen.

Gaur egun, Abornikanoko Auzolana Enbeita familiaren bizilekua da, eta errentan emandako lurrak eskualdeko abeltzain batek ustiatzen ditu.

I KUKULUS PROIEKTUA I	
Sortu eta lehen hamarkadan, Fundazioak landa-eremuan aurkitzen zituen premien arabera jarduten zuen. Babes sendoa eta iraunkorrak ematen ahalegintzen zen, nekazaritza- eta abeltzaintza-esparrua indartuko zuten proiektuak sustatzeko. Maryren elkartasunean oinarrituta, giza garapena bultzatu nahi zuen ekimen orori ematen zitzaion lehentasuna.	
Filosofia hori ardatz hartuta, Kukulus proiektua sortu zen 1971n. Maryk eskatuta, Batzordeak Kukulu mendiko (Loiu) lurzati bat usufruktuan ematea erabaki zuen. Osabide elkarteak izan zen onuraduna; Maryk berak sortutako elkarteak zen, eta gaixo mentalak zaintzen zituen. Osabidek bizitza arruntera berregokitzeko esperientzia bat egin nahi zuen, Bizkaiko eta inguruko ospitale psikiatrikoetatik irteten ziren pazienteentzat.	
Handik lau urtera, Maryk beste laguntza bat eskatu zion Patronatuko Batzordeari: Fundazioak Kukulu mendian zituen lau hektareetako bat Osabideri ematea, bere asistentzia-zentroa egin zezan. Beste hiru hektareetan, Fundazioak fruta-arbolak landatuko zituen, eta pazienteek, inguru hartan, lan	

terapeutikoa egingo zuten. Fundazioa zuzendaritza tekniko, ekonomiko eta komertzialaz arduratuko zen. IRYDAren laguntza jaso zuen lurra prestatzeko. Azkenean, 1976an, proiektua sortu zen.

Fundazioak Jon Egileor, Bizkaiko Foru Aldundiko fruta-teknikaria, izendatu zuen plantazioa zuzentzeko. Kanpoko langileen laguntzarekin sagarrondoak eta madariondoak landatu zituzten bereziki. Proiektua positiboa izan zen. Hala ere, hasieran ezarritako helburuak ez ziren bete, Osabidek ez zituelako egoitza irekitzeko beharrezkoak ziren baimenak eta laguntzak lortzen.

Horren ondorioz, 1978an, Fundazioak plantazioa eta Osabideren proiektua bitan banatzea erabaki zuen, eta fruta-ustiategiaz zuzenean arduratzea.

Ustiategiak bilakaera positiboa zuen eta, gainera, ez zuen gastu handirik eragiten. Jarduera txikia zeukan, baina jarraitua. Izan ere, 1979an, zerbait biltzea lortu zen. 1981ean, Osabidek lurzatia erostea erabaki zuen; handik urtebetera, berea zen. 1984. urterako, elkarsteak plantazioa kontrolatzen zuen.

Egoitza Kukulu mendian egitea ezinezkoa zenez, Osabidek Madariaga baserria, Fundazioaren jabetzakoa, erabiltzea pentsatu zuen. 1986an, Batzordeak errentan eta erosteko aukerarekin ematea erabaki zuen. Bi urte geroago, Osabidek Gizarte Laguntzako Foru Erakundearekin (GLFE, Bizkaiko Foru Aldundia) harremanetan jartzea proposatu zion Fundazioari, Madariaga baserria autistei laguntzeko zentro gisa erabiltze aldera.

Esan eta egin. 1989an, Fundazioak baserri hori eta hektarea-erdiko lurzati bat eman zizkion errentan Osabideri.

Fundazioak eta Osabidek bat egiteko asmoa dantzan zegoen Maryren buruan. Fundazioko Patronatuko batzordekideak Osabide elkarteko Zuzendaritza Batzordeko kideak ere izatea proposatu zuen. 1989ko abenduan, Osabideren Batzar Nagusiak ontzat eman zuen proposamena. Bi erakundeen jarduerak bat egin zuten, azkenean 1995ean Osabide desagertu zen arte.

Madariaga baserria Fundazioaren ondare nagusia zen. Hala ere, 1991. urtearen amaieran, Eusko Jaurlaritzak Ertzaintzaren Eskualdeko Ertzain-etxea Erandion egitea proiektatu zuen, eta horrek Madariagari eragiten zion. Lurzatia eroslearen eskaintzaren arabera saldu zen: 2.600 pts/m2 (15 euro baino apur bat gehiago). Gainera, GLFEarekin etxearen eta ondoko lurraren gainean zeukan kontratuari eutsi zion Fundazioak, jarduerak jarrai zezan.

FUNDAZIOAREN UNE GOGOANGARRIAK

- ✿ 1965eko apirilean sortu zen.
- ✿ Helburu hauek zituen: prestakuntza ematea, ekimen eta proiektu berritzaileei laguntzea...
- ✿ 'Euskal baserria', nekazaritzaren etorkizunari buruzko ikerketa.
- ✿ Euskadiko nekazaritza-sindikalismoaren sorrera sustatzea.
- ✿ Nekazaritza-teknikariei prestakuntza eta espezializazioa ematea.
- ✿ Bizkaian nekazaritza-kudeaketa sustatzea.
- ✿ Euskadiko nekazaritza-kooperatibismoa egituratzen laguntzea.
- ✿ Oinarriren (Euskadiko gizarte-ekonomiarako elkarrekiko berme-baltzua) bazkide babesle gisa parte hartzea.
- ✿ Banakako ekimenak eta Hegoaldeko herrialdeetako ekimenak bideratzen laguntzea. 2006an Munduko Landagunearekin hitzarmena egitea.





· 07 ·

FUNDACIÓN ITURRIAGA DAÑOBEITIA FUNDAZIOA

Lanak baserriaren etorkizuna zaila izango zela igartzen zuen.

EUSKAL BASERRIA, MIREN
ETXEZARRETAREN IKERKETA



EUSKAL BASERRIA, MIREN ETXEZARRETAREN IKERKETA

Fundazioa aurreago deskribatu dugun egoeran sortu zen. Hasierako ekimen nagusietako bat, eta beren-beregi aipatu beharrekoa, Miren Etxezarreta ordiziar ekonomialariari euskal baserriari buruzko ikerketa bat agintzea izan zen. Miren Etxezarreta Nekazaritza Ekonomian espezializatu zen London School of Economics eskolan, eta hantxe lortu zuen doktore-titulua.

Gipuzkoar aditu hark mundu horri buruzko azterketa xehea egin zuen, eta horretan oinarrituta, baserriari eta haren etorkizunari buruzko ondorio argi batzuk atera zituen.

Fundazioak erreferentzia bat izan nahi zuen –ibilbide-orri bat, gaur egun esango genuke–, Bizkaiko nekazaritzari eta abeltzaintzari laguntzeko zer urrats egin jakiteko. Funtsean, ikerketa zorrotz hark argi baino itzal gehiago erakusten zituen, eta ez zuen oso etorkizun itxaropentsua igartzen baserritarrentzat.

Ikerketaren helburua zen baserriaren egoera ekonomikoa aztertzea eta etorkizunerako aukerak ebaluatzea. Fundazioaren lanaren ardatz bera zeukan: baserria eta familia, eskualdean komunitatearen ongizaterako dauden nekazaritza-baliabideak hobeto aprobetxatzen dituen esparru batean, eta baserria gizartearen aberastasun sozialaren eta baliabide ekonomikoen zati dela ulertuta.

Ikerketa egiteko informazio-iturri nagusia Bizkaiko eta Gipuzkoako 112 baserriren datuak izan ziren; datu-bilketa sakona egin zen, oso zehatzak ziren itaun-sorten bidez. Landa-lan hori 1972ko negutik 1973ko udaberrira bitartean egin zen.

Ikerketak baserriaren egoera aztertu zuen, munduan bi herrialde-mota zeudela kontuan hartuta: ekonomikoki garatutako herrialdeak, behar zutena erosi eta soberako nekazaritza-produkzioak esporta zitzaketenak; eta soberakin horiek erosten zituztenak, behar zuten guztia erosterik ez zeukaten herrialde pobreak.

Lehen taldean, Europako Ekonomia Erkidegoko herrialdeak zeuden (artean, Espainia ez zegoen barruan), enpresa gisa kudeatutako ustiategi handiak

zituztenak. Neurri txikiagoan, irauteko borrokatzen ziren nekazarien ustiategi ertainak zeuden, baita ustiategi txikiak ere, industria-langileen bizimodua eta diru-sarrerak bermatzen ez zituztenak.

Horren ondorioz, nekazari txikiak nekazaritza uztea erabakitzen zuen; nekazari ertainak gero eta zor handiagoa zeukan, eta nekazaritza-prezioak industriakoak baino askoz txikiagoak ziren, eta horrek guztiak haren ahaleginak zapuzten zituen. Eta gainera, produkzioak soberakinak zituen.

Egoera atsekabegarri nolakoa zen ikusita, bigarren sektorea ekonomiaren eragilea zen lekuetan, nekazari txiki eta ertainek industriara jo zuten. Hortaz, euskal baserritarraren batez besteko adina handia zen, eta lehen sektorean jarraitzen zuten gazteek ondo zekiten instalazioak eta antolaketa-eredua aldatu beharra zegoela.

“Baserria Euskadiko nekazaritza-ustiapenaren oinarritzko forma da, bakarra eta tradizionala, eta landa-guneetako familiaren eta gizarte-antolaketaren muina. Baserria euskal herriaren oinarritzat hartzen da, lurrarekin lotzen gaituela uste da. Gainera, gaur egungo ia euskaldun guztien jatorria baserria da. Gure arbaso hurbilen artean, ia denok ditugu aitita-amama baserritarrak; askoren gurasoak baserritarrak dira edo izan dira; egungo euskaldun asko baserri batean bizi dira. Euskal herritarrok oso maite dugu baserria, eta ezin ditugu teilatu gorriko eraikin zuri horiek barik imajinatu gure mendiak, hainbeste nabarmentzen baitute paisaiaren edertasuna. Baserria eta euskal herria elementu bereizezinak dira”.

Ikus daitekeenez, erromantizismo eta sentimendu handiz hasi zuen Miren Etxezarreta bere liburua, baserriaren egoera txarra zelako eta haren alderdi ekonomikoak ezezagunak zirelako kezkatuta.

Egileak Fundazioaren ahalegina azpimarratzen du, egoeraren diagnostiko bat egin nahi baitzuen bere ekintzak bideratzeko, nekazaritza eta baserria mantendu eta garatu nahian. Ordiziar ekonomialariaren arabera, ezagutza zabal, zehatz eta zorrotzak erakuts dezake zer ekimen den egokia etorkizunari begira.

Ikerketa sakon eta luzea egin ondoren, Etxezarretak ondorioztatu zuen baserriaren etorkizuna oso zaila zela. Batez ere, landa-bizitzaren eta

nekazaritza-ustiapenen gunea izaten jarraitzeko aukerarik ez zuela uste baitzuen “Baserria bideraezina da etorkizunari begira”, adierazi zuen.

Sortu zenetik, Fundazioak Euskadiko nekazaritza eta abeltzaintza ikertzea izan du helburu. Patronatuko Batzordeko kideak baserriaren egoerari eta etorkizun-aukerei buruzko ezagutza sakonagoa izan behar zutela ohartu ziren, Euskadiko nekazaritza eta, bereziki, baserria eta baserritarrak mantentzen eta garatzen nola lagundu jakiteko.

Premia horrek eraginda, ‘Euskal Baserria’ proiektua sortu zen. Batzordeak baldintzarik gabe lagundu eta denbora luzea eman zuen proiektuan. Liburua egiteko, hiru urte eman ziren ikertzen, eta beste hiru, idazten eta editatzen. Esan behar da Fundazioak lan hori osorik finantzatu zuela. Erabateko babesak eman zion, eta ikertzaileek askatasun osoa izan zuten. Hauek izan ziren: M^a Jesús González, Jesusa Aguirre eta Jon Mancisidor, eta Miren Etxezarreta bera.


1974ko martxoan, liburua eman zioten Batzordeari, baina, zenbait arazo tarteko, 1977an aurkeztu behar izan zuten, Bilbon eta Tolosan.

Euskal Baserria liburua 1977an eman zuten ezagutzera, hau da, Fundazioa sortu eta hamabi urtera. Horri esker, urrats zehatzagoak eman zituen harrezkero, Bizkaiko eta Euskadiko nekazari eta abeltzainei laguntzeko.

Euskal Baserria liburuak jauzi kualitatiboa ekarri zuen gure landa-munduaren gainbeherarekiko pertzepzioan. Zalantzak, kezkak eta erronkak egiaztatu ahal izan zituen, datu enpirikoen eta edonork ulertzeko moduko bidez adierazi baitziren. Hortik ondorioztatu zuen Fundazioak ikerketaren eta prestakuntzaren aldeko apustu tinkoa egin behar zuela.

Hori zen hirurogeiko hamarkadaren amaierako eta hirurogeita hamarreko hamarkadaren hasierako egoera sozioekonomikoa; etorkizuna oso iluna zen euskal baserriarentzat eta gizarte-antolaketako modu horrek berekin zeukan ondarearentzat.

Fundazioak itzelezko erronka zuen, bere baliabideak Bizkaiko eta Euskadiko nekazaritza-munduan eraginkortasunez erabiltzeko eta ezinezkoa zirudiena gelditzen saiatzeko: ustategiak masiboki uztea, industriaren gorakada handiaren aurrean (kontuan izan behar da industria izugarritzko iraultza izan zela).



· 08 ·

FUNDACIÓN ITURRIAGA DAÑOBEITIA FUNDAZIOA

Batzordeak garatutako jarduera biziaren berri ematen dute aktek.

FUNDAZIOA,
URRATSEZ URRATS

FUNDAZIOA, URRATSEZ URRATS

Aurreko kapitulu batean Fundazioaren une gogoangarriak azaldu baditugu ere, uste dugu aktak irakurriz haren zirrikituak apur bat hobeto ezagutuko ditugula.

Hori dela eta, errepikakorrak izateko asmorik gabe, Batzordeak fundatzailearen desioak betetzeko egin dituen jarduera nagusiak ekarri nahi ditugu gogora: Bizkaiko eta, orokorrean, Euskadiko nekazari eta abeltzainei laguntzea.

Lehen biltzarra Mungiako Sollube jatetxean egin zen, 1965eko ekainaren 9an, Fundazioa formalki eratu eta bi hilabetera. Patronoek zenbait gai izan zituzten hizpide: eskola-etxearen izena (Baserritarren sendiarteko ikastetxea izena aukeratu zuten) eta Mungialdean irakasleak kontratatzeko finantziazioaren beharra. Halaber, Asuako haraneko jabeen elkarartearekin Fundazioak Madariaga baserriaren jabetzetan zituen interesei buruz negoziatzeko beharraz ere egin zen berba.

Urte hartako bigarren eta azken biltzarra urriaren 1ean egin zen, sendiarteko etxea izango zen Kostone etxean (Larrauri, Mungia). Labur-labur esanda, Fundazioaren ondasunen balorazio bat egin zen, zerbait saltzeko eta finantziazioa lortzeko. Gainera, Maryk Larraurin alokatutako eraikin batean sendiarteko landa-ikastetxe bat irekitzeko plana azaldu zuen. Horrez gain, Markinako ikastetxearekin ikasle-trukean aritzeko aukera ere tratatu zen, ikasleak gutxi baitziren beti.

1966an, biltzar bat baino ez zen egin, eta hartan, urtebete lehenago jorratutako gai berberak izan zituzten: lurzatieen salmenta, finantziazioa lortzeko, eta ikaslerik eza, ikastaroak antolatzeko.

1967ko ekainean, Cástor Uriartek patronoa izateari utzi zion, lan gehiegi zuelako. Ministerioarekin harremanetan jartzea eztabaidatu zen, Fundazioaren xedeak zabaltzeko. Ladesena baserria lurzatiaren beste erdiaren jabeari saltzea erabaki zen.

Ia bi urte geroago, 1969ko apirilean, Batzordea Maryren etxean bildu zen, Erandion. Lau urte bete zirenez, Patronatua berritu beharra zegoen. Dionisio Gabiñak, Carmen Iturriagak eta Pedro Bilbaok batzordekideak izateari utzi zioten.

Patronatu berria honako hau zen:

- ✿ Presidentea: **Juan Escobal Elexpuru.**
- ✿ Presidenteordea: **Bernardo Mesanzas Ruiz de Salas.**
- ✿ Idazkaria: **Bittor Kapanaga.**
- ✿ Batzordekideak: **Teresa Arano, María Arrieta, Mary Iturriaga, Miren Etxezarreta, Jon Gabiña, Manuel Ruiz Urrestarazu eta José Luis Lizundia.**

Batzorde berria Maryren etxean bildu zen urte hartako uztailean eta irailean, eta Batzorde Iraunkor bat sortzea erabaki zuen, Patronatuko Batzordeari bere gestio, akordio eta, oro har, jarduketan berri eman ziezaion Batzordeak izendatu eta ordezkatzeko zituen haren kideak. Urriko biltzarrean, beste idazkari bat izendatu zen (José Luis Lizundia), eta diruzaina izendatu barik geratu zen.

Abenduaren 3an, beste biltzar bat egin zen (ordutik aurrera, Asuako Jai Etxean, Erandion). Zenbait akordio hartu ziren:

Bernardo Mesanzak dimititu egin zuen, eta Ruiz Urrestarazu izendatu zuten presidenteorde. José Mari Ziloaga batzordekide izendatu zuten, eta Jon Gabiña, diruzain kontulari. Mary Iturriagari baimena eman zitzaion Abornikanon lurak erosteko tratua ixteko; Auzolana Fundazioaren usufruktuduntzat hartzea eta 200.000 pezetako (1.200 euro) mailegua ematea adostu zen.

1970ean, lau biltzar egin ziren. Hauek izan ziren gai nagusiak:

- ✿ Abornikanon errota-etxea eta haren lurrak José Luis González Belandiari erostea.
- ✿ Kepa Enbeitak Auzolanan egindako lanei buruzko txosten bat aurkeztu zuen.
- ✿ Batzorde Iraunkorra martxan jarri zen, Fundazioaren lanak bizkortzeko.
- ✿ Beste lurzati bat erosi zen Abornikanon, eta gero, lau gehiago, jabetza bat, etab. Ondasun horiek Bilboko Udalaren desjabetzeetatik lortutako diruarekin ordaindu ziren.
- ✿ Errota-etxearen usufruktua eman zitzaion Auzolanari, 30 urterako.
- ✿ Mungialdean berotegiak jartzea diruz laguntzea adostu zen; hain zuzen, gehienez kostuaren %60 ematea.
- ✿ Auzolanak txerriak jartzeko nabe girotu bat finantzatzeko eskaera atzera bota zen.

1971n, patronoak hiru aldiz bildu ziren. Fundazioak Abornikanon jarraitu zuen, sozietate anonimoari zenbait laguntza material eta tekniko eskainiz. Meñakako auzokoei laguntzak eman zitzaizkien auzoko elektrifikazio-lanak egiteko, eta beste alde batetik, enpresa elektrikoen akzioak erostea erabaki zen.

Loiuko mendi bateko lau hektarea usufruktuan eman zitzaion gaixo mentalekin lan egiten zuen elkarte bati.

Batzordeak Abornikanoko Auzolanari laguntzak ematea adostu zuen, lurrak erosteko eta nabeak egiteko. Eta euskal baserriari buruzko ikerketa-lanari oniritzia eman zitzaion; Miren Etxezarreta gipuzkoar ekonomialariak zuzenduko zuen. Urteko azken biltzarrean, 1965-1971 denboraldiko memoria eta kontu-egoera aurkeztu eta onartu ziren.

1972ko udaberrian, Abornikanon lurzati gehiago erostea erabaki zen, Asuako desjabetzeetatik lortutako diruarekin. Nekazaritza-arloko hiru ikaslek landa-gune txiki bati (Garai) buruzko ikerketa lana egitea onartu zen.

Erakundeak diru-laguntzak ematen jarraitu zuen, nekazaritza-arloko gizarte-segurantzari buruzko ikerketa bat agindu zuen, etab. Abornikano Auzolanari kontuak emateko eskatu zitzaion, eta interes handiz jarraitu ziren agindutako ikerketak. Lizundiak idazkari-karguari utzi zion, lanak funtzio hori betetzea galarazten baitzion.

1973ko lehen biltzarrean, Batzordeak Javier Elguezabal abokatua izendatu zuen idazkari. Patronoek egiaztatu zuten Auzolanak ez zituela kontuak eman, eta maileguak ordaintzen hasteko eskatu zioten. Batzordekideek 1972ko kontuak onartu eta Belako auzoko (Mungia) lur bat saltzea erabaki zuten.

Apirileko biltzarrean, urteko funtzionamendu-aurrekontu bat ezartzea adostu zen. Ikasle gazteek Garairi buruz egindako ikerlana euskarara itzuli zen, eta Miren Etxezarretak baserriari buruzko lanari buruzko txosten bat aurkeztu zuen. Uztaileko biltzarrean, diruzainak jakitera eman zuen Fundazioaren balio higigarrien inbentarioa egitean hainbat zailtasun aurkitu zirela. Abornikanoko Auzolanak kontu-egoera aurkeztu zuen, baina Fundazioak zorra amortizatzeko beste plan bat eskatu zion.

Azaroko biltzarrean, Urrestarazuk bere dimisioa aurkeztu zuen, Administrazioan beste funtzio batzuk hartu ostean. Inbentarioa osatzeko eta funtzionamendu-eta kapitalizazio-aurrekontuak egiteko lana aurrera zihoan. Akzioak erosteko politikarekin jarraitzea erabaki zen. Auzolanarekin lotutako beste gai batzuk jorratu ziren: eskriturak aurkeztea, gai juridikoak erregularizatzea, etab.

1973ko azken bilera eta hurrengoak ez ziren Jai Etxean egin, Mungian baizik. 1974. urterako aurrekontua onartu zuten. Elguezabalek onartu zuen Fundazioaren lanen ardura hartzea, astean 4-5 lanaldi erdiz. Juan Escobalek pertsona espezializatuak kontratatzea proposatu zuen, nekazariei hainbat teknika irakats diezazkieten, eta nekazaritza-lana industrializatzea eta nekazaritza-produktuak merkaturatzea bultzatzeko.

1974ko urtarrilean, Batzordeak aholkularitza bat martxan jartzea eta produktoreekin kontratuakegitea iradokizuen. Gainera, ikerketateorikoetarako bi sari iragarri ziren, eta Euskadiko baserriaren eta nekazaritzaren alderdi sozial, tekniko eta ekonomikoekin lotutako beste bat.

Martxoko biltzarrean, Gaizka Gancedok Manuel Ruiz Urrestarazuk utzitako kargua hartu zuen.

I SINDIKALISMOA BULTZATZEA I

Sortu eta lehen hamarkadako lan gogorraren ostean, 1976ko udatik aurrera, José Maria Zeberio sartu zenean, eta aldaketa soziopolitikoaren giroarekin bat etorritz (gizarte demokratikorantz eta elkarketa libererantz gindoazen), Fundazioak bere planak aldatu zituen, eta Euskadin nekazaritza-sindikatu autonomo bat sortzen eta sustatzen ahalegindu zen.

Ahalegin handiak egin zituen Fundazioak horretan. Gizarteak elkartze-dinamismo handia zeukan arlo politikoan zein arlo sindikalean, eta horren ondorioz, elkartze-mugimendu hori sortzen parte hartzea erabaki zuen Fundazioak. Baserritarrek tresna komuna behar zuten laguntzak eta euren baldintzen hobekuntza eskatzeko, sektoreak aurrera egingo bazuen.

Patronoek laguntza eman zieten nekazari eta abeltzainei, eta eurekin elkarlanean jardun zuten Euskadiko sindikatu-erakunde autonomo bat sortzen. Prestakuntzaren, txostenen, ikerketa monografikoen, eta laguntza tekniko, juridiko eta ekonomikoaren bidez lagundu zuen Fundazioak.

Fundazioak erabaki zuen sortzen ari ziren sindikatu-ekimenei autoantolatzen uztea zela aukera egokia. José Maria Zeberio buru zuen Batzorde Iraunkor bat sortu zen, aldian-aldian Euskadiko nekazaritza-arloko sindikatuen garapenaren berri eman diezaien patronoei.

Horren ondorioz, 1976-1977an, EHNE-UGAV sindikatua sortu zen. Euskal Herriko Nekazarien Elkartea-Unión de Ganaderos y Agricultores Vascos (EHNE-UGAV)

sindikatuak hiru ordezkaritza zituen: Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa. Hala ere, erakunde horrek 1981ean onartu zituen bere estatutuak. Geroago, EHNE Nafarroa sortu zen.

Fundazioak, Zeberioaren eskutik, laguntza teknikoa eta administratiboa eskaintzen zuen, nekazaritzaren Gizarte Segurantzarekin, kontabilitatearekin eta antolaketarekin lotutako gaiei buruz. Gehienbat, esne-sektoreari ematen zitzaion laguntza hori (esnearen analisiak eta kontrol-metodoak).

Dena den, nekazaritza-ikasleentzako ikastaroak antolatzen, landa-munduaren arazo eta aukerei buruzko berbaldiak egiten, eta aldizkari eta irratietan kolaboratzen jarraitu zuen Fundazioak, besteak beste.

EHNEren identitatea, autonomia eta egiturak sendotzen ziren neurrian, Fundazioaren jarduera gero eta teknikoagoa zen sindikatuan, eta abeltzainen onerako egiturak aztertzeke eta hobetzeko batzordeetan hartzen zuen parte. 1980. urtearen hasieran, Fundazioa EHNE-UGAV sindikatuan jarraitu ala ez hausnartzen hasi zen, eta sindikatu-mugimendua sustatzeko eta lehen bultzada egiteko lana bukatutzat jo zuen; hori dela eta, sindikatutik bereizi zen, eta ordutik aurrera, laguntza espezifikoa baino ez zituen eman.

I FUNDAZIOAREN JARDUERAK BEHERA EGIN ZUEN I

1980tik 1992ra bitartean, jarduera-maila txikiagoko aldia izan zen Fundazioarentzat. Aldi horretan, Autonomia Estatutua onartu zen, eta Euskal Kontseilu Nagusia eta Eusko Jaurlaritza sortu ziren. Urte haietan, Espainiako Gobernuak nekazaritza-eskumen asko transferitu zizkion Euskadiri.

Hortaz, eskumen-esparru berrian, Eusko Jaurlaritzaren esku geratu ziren lehen sektoreko aginpide gehienak, eta esan dezagun, soberan gainditzen zituen Fundazioak ordura arte izandako zereginak.

Hamarkada luze hartan, Fundazioak indarrean zeuden proiektuei eutsi zien, eta bekak ematen jarraitu zuen. Orobat, dibulgazioaz ere arduratu zen; berba baterako, astean behingo saioa zuen Radio Popular irratian, landari eta haren arazoei buruz mintzatzeko. Gainera, kolaborazioak egin zituen Anaitasuna aldizkariarekin eta Euskadiko beste aldizkari batzuekin.

Hirurogeita hamarreko hamarkadaren amaieran, Fundazioaren kezka nagusia nekazaritza-sektoreari zerbitzu ona ematea zen: abeltzaintzaren produkzioaren eta merkaturatzearen egitura, baratzegintza-sektorea, baso-sektorea...

Era berean, Fundazioak elkarlanean jarduten zuen nekazaritza-erakundeekin – pribatuekin (Beyena, UTECO, Ipar Kutxa...) eta publikoekin (nekazari-ganberak, nekazaritza-ordezkaritzak, aldundia, Euskal Kontseilu Nagusia...)- eta gizarte eragileekin (lanbide-elkargoak, alderdi politikoak eta sindikatuak).

Sektorearen beharrak asetzeko, Fundazioak aholkularitza bat abiarazi nahi zuen. Animalia-saneamenduko kanpainak egin zituen, eta gainera, nekazari-erakundeetako ordezkarien talde bat osatu nahi izan zuen, Bizkaian eta Euskadin nekazaritza-politikarako planak antola zitzaiz.

‘Euskal Baserria’ ikerketan adierazitako ondorioetan oinarrituta, eta Fundazioaren lanen garapena aintzat hartuta, Batzordeak Euskadiko nekazaritza- eta abeltzaintza-arloari buruz hausnartu zuen: baserri tradizionala ez zen etorkizunean bideragarria izango.

Ondorio latz hori kontuan hartuta, Fundazioak beharrezkotzat jo zuen etorkizunazeukaten ustategien inbentario bategitea, erreforma estrukturalerako plan bat egitea eta burutzea, eta nekazaritza- eta abeltzaintza-ustategien beste eredu bat diseinatzea. Hori guztia, kontuan hartuta zer profesional gutxi jarraitu nahi zuten sektorean.

Fundazioa egoera historiko bitxian zegoen. Hirurogeita hamarreko hamarkadaren amaieran, Fundazioaren jarduera apalagoa zen, eta giza baliabideak eskasak ziren, baina Espainiako administrazio-egoera aldatu egin zen: demokrazia iritsi zen, eta erkidegoen estatua sortu zen. Horrek guztiak eragina izan zuen sindikalismoan eta nekazaritza-politikako planetan. Hurrengo hamarkadan, Fundazioa dinamismo txikiko etapa batean murgildu zen. Urtean lau biltzar egin ordez, bi egiten hasi ziren, eta horrek erakundearen ekimenak eten egiten zituen.

Sarrikoko fakultatean mintegiak egiteari utzi zion; beste erakundeekiko harremanak hoztu egin ziren; eta EHNErekiko harremana noizbehinkako laguntzetara mugatu zen.

Ezbeharren bat izandako baserritarrei laguntzen zien, eta diru-laguntzak ematen zituen ikerketetarako, prestakuntza-beketarako, aholkularitzarako eta proiektu bakarren bat egiteko, hala nola Mendexako baratzegintza-taldea (1983. urtea).

I ZERBITZU-KOOPERATIBISMOA SORTU ZEN I

Laurogeiko hamarkadaren hasieran, zerbitzu-kooperatibismoaren mugimendua sortu zen Bizkaiko baserritarren artean, sektorea berreskuratzeko eta eraldatzeko asmoarekin.

Baina inbertsio handiak egin behar ziren, baserrietara elektrizitatea eramateko edo telefono-kableak ipintzeko, berbarako. Fundazioak gastu horien zati bat ordaintzeko konpromisoa hartu zuen. Horretarako, zerbitzu-kooperatibak sortzea bide egokia zen.

Mugimendu horrek urte batzuk zeramatzan Gipuzkoan. 1971n, Lurgintza sortu zen Balentin Zamoraren eskutik, nekazaritza- eta abeltzaintza-kudeaketarako zentro gisa, kooperatiben egiturarekin eta irabazi-asmorik gabe. Hauek zituen helburu: lurrari lotutako nekazaritza sustatzea, profesionalen bizitza-kalitate ona bermatzea, onarpen sozial eta kulturala izan zezaten laguntzea, eta baserritarren eta erakundeen artean asistentzia- eta bitartekotza-lanak egitea.

Gipuzkoarren esperientzia arrakastatsua abiapuntu hartuta, Fundazioa Bizkaiko kooperatibekin jarri zen harremanetan, eta eurak Bizkaian ustiategiak kudeatzeko bulego bat sortzearen alde azaldu ziren. Fundazioak bere laguntza eskaini zien: teknikariak prestatuko zituen horretarako, kooperatibek proiektuarekiko konpromiso sendoa hartzekotan. Eta hala izan zen.

Ilido horretan, 1984an, Fundazioak Bizkaiko kooperatibak –Guvac (Karrantza), Miba (Markina) eta Cava (Arrate)– kudeatzeko zentroaren sorrera sustatu zuen. Zentro horri Lorra deitu zioten, eta hura sortzeko, Lurgintzako teknikari José Etxezurietaren laguntza izan zuen; Gipuzkoan lortutako ezagutza tekniko eta ekonomikoak ekarri zituen. Fundazioak Etxezurietaren gastuen %50 finantzatu zuen, eta zentroko lehen teknikariaren kontratazioaren gastu guztiak. Lourdes Nafarrate, Fundazioaren beka bati esker Ingalaterran ikasitakoa, izan zen teknikaria.

Fundazioak ia hiru milioi pezeta (18.000 euro) eman zituen 1984ko ekitaldirako. Dena den, zentroak finantziazio handiagoa behar zuen, eta Fundazioak akordio bat egin zuen Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Arrantza Sailarekin; horri esker, kudeaketa-zentroa martxan jartzeko kostuaren portzentaje handia Administrazioak ordaintzea lortu zuen. Lan Sailak Nafarrateren kontratua ordaintzeko diru-laguntza eman zuen.

Eusko Jaurlaritzarekin egindako bi akordio horiei esker, Fundazioaren ahalegin ekonomikoa txikiagoa zen, eta gainera, zentroa Fundazioarekiko autonomoa izango zen etorkizunean. Izan ere, sortu eta bi urtera, Lorrak ez zuen Fundazioaren urteko diru-laguntza behar izan.

Lorrak arreta berezia ipini zuen Karrantzako eskualdean Proiektua finkatu egin zen, eta beraz, Fundazioaren protagonismoa txikitu egin zen.

Gerora, Fundazioak Euskadiko Nekazari Kooperatiben Federazioarekin elkarlanean aritzea pentsatu zuen; horretarako, Iñaki Nubla kontratatu zuen.

Laurogeiko hamarkadaren amaieran eta laurogeita hamarrekoaren hasieran, Eusko Jaurlaritzako nekazaritza-eskolekin lankidetzan jardutea erabaki zuen Batzordeak. Agoralari (Arabako ardi latxaren elkarte) lagundu zion, hobekuntza genetikoko programa bat egin zezan, elkarte bera, Arabako Foru Aldundiaren laguntzarekin, bere kabuz arduratu ahal izan zen arte.

Bestalde, Bizkaira oso egoera txarretan iristen ziren immigranteak hartzeko eta erregularizatzeko proiektu bati ekin zion. Fundazioak autoenplegu-programa bat sortzea aztertu zuen. Lan hori aldian behin egingo zuen, Fundazioaren jarduera-eremutik kanpo baitzegoen.

1993an, Fundazioak beka bana eman zien Nekazari Eskolako lau ikasle ohiri, eta beste bat lizentziatu bati. Gainera, bi dohaintza eman zizkion Jai Etxeko familia bakoitzari (ezbehar familiar larria dela eta).

I BALIABIDE EKONOMIKOAK I

1986an, Fundazioak 12 milioi pezeta (72.000 euro) inguru zeuzkan, eta horri esker, beste jarduera batzuei heltzeko aukera izan zuen.

Urtebete lehenago, Landa-errentamenduen Legea sartu zen indarrean, eta haren ondorioz, iraupen luzeko kontratua zutenek erosteko aukera izan zuten, baldintza onuragarrietan. Arau horrek Fundazioaren interesei eragiten zien, eta Patronatua ahalik eta interesa zuten maizter gehienekin akordioa lortzen saiatu zen (gehienak Mungialdekoak ziren).

Urte haietan, Fundazioak zenbait higiezin- eta finantza-eragiketa egin zituen:

- ✿ 1986an, Goiko Ibarra baserria erosi zuen Bakion.
- ✿ 1987an, Bakioko lurzati baten desjabetzea gertatu zen.
- ✿ 1988an Gatikako lur bat eta Fadura ondasuna saldu zituen.
- ✿ 1989an, Bakioko Goiko Ibarra baserria saldu zuen.
- ✿ Urte horren amaieran, Fundazioak 27 milioi pezetako (162.000 euro) funtsak zituen, akzioetan, epe finkoko libretetan, zor-agirietan, bonuetan...
- ✿ 1992an, Madariaga baserriaren lur gehienak saldu zizkion Eusko Jaurlaritzako Barne Sailari. Urte hartan, Mungiako lurzatiak eta lursailak saldu zituen, eta etxe bat erosi zuen Gasteizen, Jai Etxetik irten beharra ikusita.

I

FUNDAZIOAREN 1996AZ GEROZTIKO EKINTZAK

I

Fundazioak bere jarduerarekin jarraitu zuen. Aurreko urteetan, aldaketa handiak egin ziren Patronatuko Batzordean. Zenbait sektoretako pertsona esanguratsuak sartu ziren. 1996ko apirilaren biltzarrean, honako hauek izan ziren: Juan Escobal (presidentea), José Mari Zeberio (idazkaria), Mary Iturriaga (presidenteordea), eta Ana Dudkiewicz (Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza Saileko funtzionarioa), Iñaki Nubla (Euskadiko Nekazari Kooperatiben Federazioko idazkari teknikoa), Celes Aja (nekazari-kooperatibetako gerentea) eta Martín Orbe (apaiza eta euskal kulturaren inplikaturak) batzordekideak. Luis Gorroño, Dunixi Gabiña eta Xabier Elguezabal historikoak ere Patronatuan ziren.

Garai hartan, Fundazioak bi biltzar egiten zituen urtean, sei hiletik behin. Biltzar haietan, urteko kontuak berrikusi eta onartzeaz gainera, bekekin eta zenbait ekimenetan izandako parte-hartzearekin lotutako jarduerak aztertzen ziren, bai eta Fundazioaren ondarearen kudeaketa ere.

Garai hartan, Fundazioaren ondareak gorabeherak izan zituen, haren ondare higigarriaren balioa gutxitu egin baitzen; eta deigarria da zenbat handitu zen ondarea, ondare higiezinaren balorazio eguneratua egin eta lurrak saldu ondoren, plusbalio handiak lortu baitziren.

1995ean, Osabide elkarte (haren ondare guztiaekin) Fundazioarekin elkartu zen.

1996az geroztik, Fundazioak ekintza-planekin eta Patronatuko Batzordeak onartutako urteko aurrekontuekin jardun zuen.

Batik bat, bekak eman zizkien doktore-tesia egiten ari zirenei eta nekazari-eskoletan graduatu ondoko ikasleei, ikerketa-proiektu txikiak finantzatu zituen, eta Oinarri (gizarte-ekonomiarako elkarrekiko berme-baltzua) eta beste gizarte-ekonomiako sozietate batzuetan parte hartu zen.

1996ko apirileko biltzarrean, Escobal presidenteak dimititu zuen, adina dela eta; Dunixi Gabiñak hartu zuen haren lekua. Beste biltzar bat egin zen azaroan –artearen Escobal presidente zela–, apirileko akordioak berrikusteko eta Fundazioarentzat proiektu berriak bilatzeko. Beste ekintza batzuk eta ohiko gai orokorrak ere jorratu ziren.

1997ko apirileko biltzarrean, presidentearen ordezkapena egin zen formalki. Funtzen egoerari eta azken ekitaldiaren itxierako balantzeari buruz ere mintzatu ziren urtearen amaieran. Abenduko biltzarrean, martxan zeuden jarduketan jarraipena egin zen.

1999ko urrian, Fundazioaren dokumentuak erregularizatu, Osabide desegin eta Fundazioaren ondare higiezinaren inbentarioa egin behar zela erabaki zen; kudeaketa ekonomiko, fiskal eta administratiboaz ere aritu ziren. Fundazioak abiarazitako beste jarduera batzuk aztertu ziren: bekak, Oinarri, Hirugarren Munduko proiektuak, etab.

2000ko urrian Batzordeak beste biltzar bat egin zuen. 1999ko kontuak onartu zituzten, eta Oinarri, beken martxari, Abornikanori eta Kukuluri buruz hitz egin.

2001eko apirilaren biltzarra berezia izan zen, martxoaren 20an Mary Iturriaga hil baitzen. Batzordeko kideek euren atsekabea eta laguntza adierazi zizkieten senideei, eta Fundazioaren eta haren sortzaile eta sustatzailearen espirituari leialak izateko konpromisoa berretsi zuten. Handik gutxira, urriaren 18an, Juan Escobal, Fundazioan 35 urtez oso lan handia egin zuena, hil zen.

Biltzar hartan, Munduko Landagunea garapenerako elkartearekin eta Bizkaiko Autismoa dutenen Gurasoen Elkartearekin (APNABI) lankidetzan jarduteko ekintzak onartu ziren, eta horrez gain, bekak ordura arte bezala ematen jarraitzea erabaki zen.

2002tik 2005era bitarteko biltzarretan, martxan zeuden gaiak berrikusi, funtsen kudeaketari buruz eztabaidatu, eta urte horietarako ekintza-planaz eta aurrekontuaz berba egin zuten. Aipatzekoa da Fundazioaren beka-politika oso aktiboa zela orduan ere. Ondarearen kudeaketari buruzko erabaki batzuk ere hartu zituzten.

2006an, lortutako baliabide gehienak nekazaritza-garapenerako proiektuekin elkarlanean jarduteko erabaki estrategikoa hartu zela nabarmendu behar da. Proiektu horiek garapen-maila txikiko herrialdeetan egiten ziren. Horretarako unitate espezifiko bat ez erabiltzea erabaki zuen Batzordeak; izan ere, Munduko Landagunearekin sinatutako hitzarmen bat (urtero berritu zitekeena) egin zen, Fundazioaren ekintza-planaren arabera.

2007an, beken eta finantzatutako jardueren balantzea egin zen: garapen-proiektuak, ikerketak, dohaintzak, elkarlana, etab. 2008ko biltzarretan, ondarearen kudeaketari buruzko gai batzuen (Belakoko lurrak) gainean berba egin, aurreko urteko balantze ekonomikoak aztertu, eta 2008ko ekintza-plana eta aurrekontua ezarri zituzten.

Besteak beste, Nekane Zeberio Fundazioaren memoria bat egiteari buruz mintzatu ziren. Nekane Zeberio kazetariak lan handia egin zuen dokumentuak bilatzen eta biltzen, eta testuak idazten, eta horri esker, errazagoa izan da Fundazioaren historia idaztea.

Interes bereziz proposatu zen Fundazioaren ondare-baliabide higigarrien segurtasuna eta errentagarritasuna uztartzea, eta ildo horretan, egokitzeak jo ziren kudeaketa eta errendimendua. Abenduan, jardueren jarraipena egin zen. 2009ko maiatzean, Batzordeak aurreko urteko kontuak onartu zituen eta ezarritako lan-lerroei eustea erabaki zuen. Fundazioaren kudeaketa ekonomikoa eta administratiboa erregularizatuta dago esparru guztietan.


Fundazioaren ondarearen kudeaketari dagokionez, ondare hori zaindu behar zela adostu zen. Horixe zen Maryren espiritua: ondarea kontsumitzea, beti ere, landa-gunearentzat interesgarriak eta onuragarriak diren proiektuak sortzen badira. Fundazioaren xedea berraztertzea eta garai eta premia berrietara egokitzea komenigarria izango zela adierazi zen.


Abenduan, Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntzarekin, garapen-proiektu bat egitea onartu zen, Chaco probintzian (Argentina) nekazarien produkzio- eta elkartze-sarea hobetzeko. 120.000 euro baino zerbaite gehiago izan ziren, eta Munduko Landaguneak kudeatuko zituen. Fundazioak bekak ematen, garapen-proiektuak finantzatzen, lankidetzarako dohaintzak ematen, ikerketak finantzatzen eta aholkularitza egiten jarraitu zuen, besteak beste.

2010eko lehen biltzarrean, aurreko ekitaldiko emaitza ekonomikoak aurreikusitakoa baino hobeak izan zirela jakinarazi zuten; izan ere, Fundazioaren moneta-aktiboen balioa handitu egin zen.

Fundazioak zenbait elkarterekin (Zadorra Fundazioa, Behar Bidasoa, Zaragozako Institutu Agronomiko Mediterraneo, Bultz-Lan...) zuen lankidetzak berrikusi zen. Orobat, 2011rako ondarearen kudeaketa, ekintza-plana eta aurrekontua aztertu ziren.

2011. urtetik aurrera, jarduera hauek dira azpimarratzekoak: Munduko Landaguneari eta Zadorra Fundazioari emandako laguntza (eta haren fundazio-funtsa bereganatzea, 2015ean desegin zenean), Zaragozako Institutu Agronomiko Mediterraneoarekiko elkarlana, eta beste prestakuntza- eta garapen-ekimen batzuk, garapen-bidean dauden herrialdeetan, gehienbat.





· 09 ·

FUNDACIÓN ITURRIAGA DAÑOBEITIA FUNDAZIOA

Protagonisten ahotsak fundazioaren zeregina azpimarratzen du.

LEKUKOTASUNAK

LEKUKOTASUNAK

Zenbait lekuko pribilegiaturen hitzak ekartzea baino hoberik ez dago, erakundearen alderdirik gizatiarrena apur bat hobeto ezagutzeko. Labur-labur bada ere, Fundazioarekin lotutako pertsona batzuen kontakizunak eskaintzen ditugu orain.

I DUNIXI GABIÑA I

Iloba. Mary Iturriaga haren amaren ahizpa bakarra zen. Duni ingeniari agronomoa da, eta Zaragozako Institutu Agronomiko Mediterraneoan egiten du lan. Gaur egun, Patronatuko presidentea da (1997ko apiriletik), Juan Escobal ordezkatu ondoren. Patronatuko Batzordeko kidea ere izan zen.

Duniren ustez, inork ez du zalantzan jartzen Fundazioak jarduerak sustatzeko eta martxan jartzeko lan handia egiten duela (bekak, nekazarien sindikatuak, kudeaketa-zentroak, nekazaritza-kooperatibismoaren sustapena...). Eta hori guztia erakunde publikoek jarduera horiek euren gain hartzen ez zituzten garai batean. Autonomia-erkidegoa sortzean, Eusko Jaurlaritzak eta aldundiek zeregin horien ardura hartu zuten.

Gaur egun, Fundazioaren laguntza gehiena garapen-bidean dauden herrialdeentzat da, Munduko Landagunearen bidez eta Zaragozako Institutu Agronomiko Mediterraneoak kudeatutako beken bidez; hain zuzen ere, Afrikan zein Amerikan garapen-bidean dauden herrialdeetako ikasleei ematen zaizkie beka horiek.

I JOSÉ MARI ZEBERIO I

Fundazioaren historiako funtsezko pertsona baten lekukotasuna duzue hemen. José Mari Zeberio Fundazioko langilea izan zen eta, ondoren, Patronatuko Batzordean sartu zen. Esan dezakegu inork ez bezala ezagutzen dituela Fundazioaren barruko kontuak.

“Mary Iturriaga kasualitatez ezagutu nuen Bilbotik Donostiara zihoan autobus batean, 1973an edo 1974an, eta gizarte-gaietan erakusten zituen grinak eta indarrak harritu egin ninduten.

1976. urtearen hasieran, Xabier Elgezabalek, nire aurrekoak, Fundazioko langile izateko proposatu ninduenean, lehen bileran, biok gogoratu genuen ustekabeko eta zorioneko topaketa hura.

Mary Iturriaga oso emakume harkorra zen arazoekiko, oso sentikorra, eta arazoak arintzeko edo konpontzeko ahal zuen guztia egiteko prest zegoen. Oso konprometitua eta eskuzabala zen.

Batzuetan, sentikortasun berezi horren eta buru-belarri aritzeko jarrera horren ondorioz, ordenarik gabe eta bihozkadaz jarduten zuen. Fundazioa sortu ondoren, haren diziplinapean jokatu behar izan zuen, eta horri esker, Maryren ekimenak eta Patronatuko Batzordeak sortutakoak oso emankorrak eta eraginkorrak izan ziren. Orain, haren ondarea horretarako beren-beregi eratutako erakunde baten bidez gauzatzen ari da, eta hori da garrantzitsuena.

Maryk bizimodu zorrotza zeukan eta ez zituen jabetzak asko maite. Oinordetzan ondare handia hartu ostean, ez zuen uste izan berak edo bere seniderik hurbilenek behar zutenik, eta giro sozial eta erlijiozkoak ondo bideratuta, ondarearen zatirik handienarekin ongintzazko fundazio bat sortzea erabaki zuen. Bizitzeko beharrezkotzat jo zuena baino ez zuen gorde beretzat, eta beste zati bat, nahikotzat eta duintzat hartu zuena, ilobentzat gorde zuen.

Oso ohikoa zen Maryk, Fundazioa sortu eta gero, dohaintza gehiago egitea, espero ez zituen edo soberakintzat hartzen zituen diru-sarrerak jasotzen zituenean.

Ez zuen inoiz arazoen alderdi abstraktua kontuan hartzen, alderdi konkretua baizik. Horrela izan zen baserritarrekin, gaixo mentalekin, etorkinekin eta Hirugarren Munduko edo garapen-bidean dauden herrialdeetako beharrianekin.

Aldi berean bi edo hiru lan-lerro izateko gai zen. Euskararen eta Euskadiko arazoengatik, gizarte-arazoengatik, eta kristaudiaren eta Eliza Katolikoaren bilakaerarengatik zegoen kezkatuta; horiek ziren haren oinarrizko ardurak. Gai horien inguruko bilera askotan hartzen zuen parte, eta besteen iritziekiko irekia zen, baina, bestalde, gogo biziz defendatzen zituen bereak. Inguruan ikusten zuen erlijio- eta gizarte-inkoherentziak sutan jartzen zuen. Halaber, sufritu egiten zuen, pertsonen eta erakunde sozial, politiko eta erlijiozkoen sentikortasun eta konpromiso sozialik ez zutelako.

Ni Fundazioan sartzea ustekabekoa eta zorionekoa izan zen. 1976an, Ekonomiako ikasketak amaitzen ari nintzela, Xabier Elgezabalekin egin nuen topo, hirugarren pertsona laguntzean, eta orduan, Fundazioan lanaldi partziala egiteko aukera sortu zen.

Hori izan zen ustekabekoa. Bestalde, Fundazioak nik egin nahi nuen lana egiteko aukera ematen zidan; alegia, nire ezagutzak eta nire denbora euskal nekazari eta abeltzainen zerbitzura jartzea, sormenaren, ekintzailetzaren eta zerbitzuaren ikuspegitik. Eta hori izan zen zorionekoa.

1976ko martxoaren hasieratik, Ekonomia Zientzietako ikasketak amaitzen ari nintzen eta, aldi berean, Fundazioa ezagutzen hasi nintzen, eta horrelako erakunde batentzat arrazoizkoa izan zitekeen lan-programa bat prestatzen. Oso une berezian sartu nintzen Fundazioan. Trantsizioa hasita zegoen, eta beraz, askatasunak erabil genitzake, langileen sindikatuak eta alderdi politikoak sortzen ziren, eta beste hainbat ekimen egiten ziren, hedabideetan, kulturean, elkartegintzan, etab.

Testuinguru hartan, 1976-77ko programan, Fundazioak euskal nekazari-sindikalismoa sustatzea onartu zuen. Horren ondorioz, EHNE-UGAV sindikatua sortu zen. Gainera, topaketak egin zituen Euskaditik kanpo nekazaritzarekin lotutako lanbideak ikasten ari zirenekin, prestakuntza-ekimenetan (berbarako, gau-eskolak) hartu zuen parte, Gipuzkoako Lurgintza bezalako kudeaketa-zentroak sustatu zituen, eta nekazari-kooperatibak demokratizatzen lagundu zuen. Eta horrez gain, Euskal Baserria liburua argitaratu zuen, eta Kukuluko fruta-ustiatagia martxan jarri.

Orobat, Fundazioak askotariko ikastaroak eta topaketak antolatu zituen Trantsizioaren hasieran, hirurogeita hamarrekota hamarkadaren amaieran.

Fundazioak oso ekarpen handia egin zuen Euskadiko nekazarien sindikalismoa sortzeko eta egituratzeko, baita EHNE-UGAV sortzeko ere. Niretzat oso urrats garrantzitsua izan zen hura, izan ere, laguntza osoa eman zidan eginkizun horretan jardun nezan.

Jarduera hori Bizkaian, Gipuzkoan, Araban eta, era murriztuagoan, Nafarroan hedatu zen, eta horrek sektorearen autoantolaketa sustatu zuen. Fundazioak eta haren teknikariak hiru urte eta erdi eman zituzten zeregin horretan, 1979ko irailera arte. Ordurako, EHNE-UGAV sindikatuak bere lurralde-egiturak sortu zituen eta, hortaz, autonomia osoz jardun ahal izan zuen harrezkero.

Gainerako ekimenei ere hasiera-hasieratik lagundu zien Fundazioak, baina, kasu guztietan, euskal autonomia zer garapen-fasetan zegoen kontuan hartuta, azkarrago garatu ziren eta arinago lortu zuten autonomiaz funtzionatzea, euskal administrazioek emandako laguntzari esker.

Aurreko guztia egiterakoan, likidezia-arazo handiak zituen Fundazioak; Maryren ohiz kanpoko ekarpenen bidez edo aktibo higiezinak salduz konpondu ziren. Likideziaren baldintza edo Patronatuak hura egitura-gastuetarako erabiltzeko aukera mugatua etengabeko faktoreak izan dira Fundazioaren historian. Hori dela eta, Fundazioak oso jende gutxi kontratatu du, eta unean uneko edo aldi behingo lanak egiteko. Proiektu bat martxan jartzeko kontratatzen zen jendea, eta ondoren, kostua eta egitura proiektuaren beraren kontura uzten ziren.

Hori gertatu zen EHNE-UGAV sindikatuarekin, orain Lorra denaren hasikinarekin edo Euskadiko Nekazari Kooperatiben Federazioarekin.

Aurrekoaz gainera, Eusko Jaurlaritzan sartu nintzenean, Fundazioa teknikaririk gabe geratu zen, eta gainera, laurogeiko hamarkadan, Eusko Jaurlaritzak bere gain hartu zituen Fundazioa sustatzen ari zen ekimenak; alegia, Fundazioak ez zeukan bultzatzeko proiekturik, eta nekazaritza-teknikarien espezializazioan jarri zuen arreta, beka-politika baten bitartez. Elkarrekin, ikerketa- eta garapen-zentroetan, unibertsitatean edo euskal autonomia-administrazioan bertan behar egiten duten teknikarietako batzuek Fundazioaren beka bat jaso dute noizbait.

Bestalde, derrigorrean aipatu behar dugu Fundazioaren osasun-alderdia, Osabide elkarrekin ardura hartu zuenean. Maryk sortu zuen elkarte hori, alkoholismoa edo arazo psikiatrikoak direla eta baztertutako kolektiboak laguntzeko.

Azkenean, ekimen hori aldatu egin zen; Fundazioaren Madariaga baserrian autistentzako zentro bat sortu zen, eta zenbait urtetan, autisten elkarrekin elkarlanean jardun zuen. Gaur egun, zentro horrek martxan jarraitzen du, Fundazioaren eta Bizkaiko Foru Aldundiko GLFEaren arteko hitzarmen baten bidez.

Nekazaritza-arloa itzuliz, ekimen berriei laguntzea Fundazioaren Patronatuko Batzordearen asmoa izan da beti. Ildo horretan, azken urteetan, bekak eman ditu Munduko Landagunearekin, Neiker ikerketa-zentroarekin eta Zaragozako Institutu Agronomo Mediterraneoarekin elkarlanean, eta dohaintza txikiak eman dizkie Afrikan eta Asian batez ere jarduten duten GGKE-ei. Baina aipagarriena da Munduko Landagunea garapenerako erakundearekin duen hitzarmena; horren ondorioz, Fundazioa erakunde horren bazkide babeslea da 2004az geroztik.

Halaber, Fundazioa OINARRI Elkarrekiko Berme Baltzuaren bazkide partaidea da, eta lankidetzat hitzarmenak izan ditu Zadorra Fundazioarekin eta Neiker ikerketa-zentroarekin, graduatu ondoko ikasleei prestakuntza-bekak emateko”.

Iturriaga Dañobeitia Fundazioan parte hartu nuen garaietara itzultzeko saio honek ondo erakusten du denborak bere ondorioak dituela. Hirurogeiko hamarkadaren hasieran eta hirurogeita hamarrekorearen amaieran zen (Fundazioa 1965ean sortu zen), eta harrezkero hainbeste gauza gertatu direnez, kostatu egiten zait garai hartan interesgarria eta atsegina izan zen esperientzia hura gogoratzea. Nire kasuan, esperientziak 1970etik 1974ra iraun zuen; 1974an utzi behar izan nuen, etxez aldatu bainintzen, eta distantzia oso handia zen.

Adiskidetasun handia izan nuen Mary Iturriagarekin. Oso emakume aparta zen; are gehiago, bere garaiari aurrea hartu zion emakumea izan zen. Interes handia zeukan euskal nekazaritzan, eta haren garapenerako fundazio bat ezarri nahi izan zuen. Izena bera ere ahoskatu ezin zen garai batean, Euskadi eta landa-mundua izan ziren biziki interesatu zitzaizkion gaiak, eta bere ondarearen zati bat eta bere ahalegin guztiak eman zizkien.

Fundazioaren xede nagusia nekazariak, abeltzainak eta, orokorrean, nekazaritza-ustiapenean aritzen diren pertsona guztiak prestatzea eta promozionatzea zen, gizabidez, sozialki eta teknikoki. Fundazioaren Patronatua eratu zen; ur-tanta bat zen basamortu mugagabe eta lehor batean. Garai hartan, izugarritzko exodoa gertatzen ari zen euskal landa-munduan, eta Patronatuko kideek ulertu egin nahi zuten hori zergatik gertatzen zen, eta gainera, euskal landa-mundua bizirik egon zedin eta eraginkorra izan zedin egiten zuten lan. Zeinen lan gatza, indar ekonomiko, sozial eta ideologiko guztiek beste norabide batera jotzen zutenean! Baina Mary ez zen erraz beldurtzen, eta Fundazioa bultzatu zuen. Ezin genuen askorik egin, egia esan, baina, nire ustez, esan daiteke Fundazioak zeregin apala baina esanguratsua izan zuela baserria desagertzea atzeratu zuten eta baserri asko nekazaritza-ustiategi moderno bihurtzea eragin zuten elementuetan.

Niri Fundazioak Euskadiko landa-munduari zuzenean lotzeko aukera eman zidan, urte asko Ingalaterran eman ostean. Nekazaritzari buruzko tesi bat egin nuen Londresen, baina, nik neuk baserritar sustraiak banituen ere, ezer gutxi nekien nire herriko landa-inguruneaz. Maryk Leonera lagundu ninduen nire tesiaren lan enpirikoa egitera joan nintzenean, eta han, Euskadin antzeko zerbait egitea interesgarria izan zitekeela pentsatu genuen. Londrestik itzuli nintzenean, euskal baserriari buruz zuzendu nuen lan zabala finantzatu zuen Fundazioak, eta gainera, Fundazioarekin lotura zeukan jende askok lagundu zidan. Horri esker, baserritarrekin harremanetan jarri ahal izan nintzen, euren egoera zein zen eta horri buruz zer iritzi zuten jakiteko. Garai hartan, baserria benetako gainbeheran zegoen, eta guk bilakaera hori agerian uzten zuten lerro handiak aztertu nahi genituen, zer-nolako ekintzak egin zitezkeen jakite aldera,

euskal nekazaritzaren eta, bereziki, baserriaren eta baserritarren garapenari ahalik eta erarik eraginkorrean laguntzeko. Egiteko prozesu zorrotz baten ostean, eta nire gorabehera pertsonalen ondorioz apur bat atzeratuta, Fundazioak liburu argitaratu zuen 1977an. Zilegi bekis oso liburu garrantzitsua izan zela esatea, hirurogeita hamarrekore hamarkadaren hasieran euskal baserria zer egoeratan zegoen eta haren bilakaera eragiten zuten elementuak zein ziren jakiteko aukera eman baitzuen. Baina, agian, honengatik izan zen garrantzitsuagoa: baserriarekiko interesa piztu zuen, eta ordutik hona baserriaren bilakaeran eta horren arrazoiengan interesa izan duten pertsona askoren erreferentzia izan zen. Liburuak baliorik badu, Fundazioari eskertu behar zaio; lana finantzatzeaz gain, hura egiteko arrazoa eta pizgarria izan zen.

Bartzelonara bizitzera joan nintzenean, ezinezkoa izan zitzaidan Patronatuan aktiboki jardutea. Baina, Fundazioan izan nintzeneko xehetasun asko gogoratzen ez baditut ere, oso gogoan daukat Patronatuan une haietan zeuden pertsonen interes intelektual handiko eta, batik bat, giza aberastasun handiko talde txiki bat osatzen zutela. Orobat, garrantzitsua izan zen niretzat, neure lurra ezagutu nuelako eta berriro ere bertakotu nintzelako, Londresera ikastera joateko utzi eta gero. Pertsona-talde haren giza berotasuna izugarri baliotsua zen, eta horixe daukat gogoan eta urte zailetan utzi behar izan nuen Euskadi baten nostalgia. Poztu egiten nau oraindik ere jardunean dagoela jakiteak –José Mari Zeberrioren interesari buruz dudan pertzepziotik–; ziur asko, Fundazioak eta haren Patronatuak onura handiak ekarriko dizkiete oraindik Euskadiko landa-guneari eta baserriei, urte askoan kezka bera izan baitute. Eskerrik asko, Mary Iturriaga, zure adiskidetasunagatik eta Fundazioa sortu izanagatik. Eskerrik asko, Patronatuko lagunak, zuen izen guztiak gogoratzen ez baditut ere.

Hona hemen Fundazioaren historiako beste protagonista baten testigantza interesgarria:

“Gogoan dut Bittor Kapanagak proposatu ninduela Fundazioan sartzea, idazkari gisa, haren lekua hartuta. Gustura onartu nuen, baina oso gutxi nekien Fundazioaren xede eta jarduerari buruz, eta ez nuen inor ezagutzen, Mary Iturriaga izan ezik, baina beste gauza batengatik ezagutu nuen, eta oso laburra izan zen.

Zenbait bileraren ondoren –batez ere Maryrekin eta Juan Escobalekin, Maryren Erandioko etxean–, Fundazioaren dinamikan sartzea lortu nuen. Drogezaleak errehabilitatzeko programaz eta Erandion eta Laukarizen (Mungia) egiten zen lanaz gain, nekazaritzan jarri genuen arreta, hura berritzeko asmotan. Horretan ibiltzen ziren lehenago ere.

Maryk oso borondate ona zeukan, baina Juanek zekien hobeto Euskadiko lehen sektorea nola zegoen, gehienbat profesionalki, albaitaria zenez gero.

Horri guztiari, Miren Etxezarreta Sarrikoko Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultateko irakaslearen jakituria –eta ez akademikoa soilik– gehitu behar zitzaion. Mirenek ideiak argi zituen; zoritxarrez, Bartzelonara joan zen.

Luis Gorroño, Berrizkoa, eta Manu Ruiz Urrestarazu, bi-biak nire lagun onak. Lehena baserritar aurrerakoia zen, euskal nekazaritzan ibilbide luzekoa –baratzezaintzan bereziki–, eta bigarrena basogintzako ingeniaria zen. Ez naiz gogoratzen, Fundazioan sartu zenean, Manu lurretako Celulosas del Nervión enpresan zegoen edo Oñatiko Lana kooperatiban zegoen edo Arabako Foru Aldundiko Basozaintza Zerbitzuan lanean zegoen (zerbitzu horretako buru izan zen erretiroa hartu zuen arte). José Mari Zeberio laguna ere Fundazioan sartu zen; ez dago esan beharrik zer-nolako curriculum-a daukan nekazaritza-sektorean eta Fundazioan.

Fundazioan egin nituen aktetan eta artxiboan dauden dokumentuetan, haren curriculumaren berri izateko nahikoa datu zehatz daude. Abornikanoko gaiak gehiegi monopolizatu gintuen arren, ondo egongo litzateke beste jarduera eta proiektu batzuk azaltzea; gehien batean, Fundazioak euskal nekazari eta abeltzainengatik agertutako kezka eta beste arlo batzuetan egindako lan soziala erakuste aldera. Nire iritziz, Fundazioaren Patronatuko kideen zerrenda (bakoitzak bertan emandako urteak) oso interesgarria izango litzateke. Kide guztietatik, Mary Iturriaga Dañobeitiaz gain, Juan Escobal Elexpuru aipatuko nuke; eurak izan ziren Fundazioaren arimak.

I IÑAKI NUBLA I

Egungo Euskadiko Nekazari Kooperatiben Federazioko idazkari teknikoak bere ikuspegia azaltzen digu.

“Orain dela 27 urte, 1988an, lehen harremana izan nuen Cándido Iturriaga eta María Dañobeitia Fundazioarekin. Garai hartan, Bizkaiko Nekazaritza Ganberan egiten nuen behar, azienda-saneamendurako kanpainan. Nire lana eskribaua izatearena zen, horretarako kontratatutako albaitari lizentziatu berriekin azienda-ustategietara egiten genituen bisitetan.

Osasun-kanpaina amaitzear zegoela, lagun batek esan zidan José Mari Zeberio –orduan Nekazaritza eta Arrantzako Ikerketa eta Prestakuntza zuzendaria eta sailak EKGKn zuen ordezkaria zen–, Euskadiko Nekazari Kooperatiben Federazioa sustatzeko ardura zeukana, EAEko nekazarien kooperatiben errolda egiteko pertsona baten bila zebilela. Zenbait urte lehenago, 1982an, Euskadiko kooperatiben lehen legea onartu zen, Eusko Legebiltzar berriaren lehen fruituetakobat. Legehorren ondorioetakobat Kooperatiben Erregistroa Madrildik Gasteizera ekartzea izan zen, eta kooperatibismoa ordezkaritza-ikuspuntutik

egituratzeko asmoa zegoen. Handik egun batzuetara, elkarrizketa izan nuen Zeberiorekin, eta lana egiteko kontratatu ninduen.

Kontratua Fundazioaren bidez egin zen; orduan, Zeberio Fundazioko idazkaria zen. Hori izan zen nire lehen harremana Fundazioarekin. Nekazarien kooperatiba guztietara joatea izan zen nire lehen lana, errolda zaharkitua eguneratzeko eta euren egoerari buruzko txostenak egiteko. Horretarako, ehunka kilometro egin nituen Euskadi landatarrean, eta ordura arte inoiz entzun ez nituen lekuak ezagutu nituen. Errolda egindakoan, Euskadiko Nekazari-elikagaien Kooperatiben Federazioa sortu eta martxan jarri genuen. Lan horretan, José Mari Zeberio ez ezik, Euskadiko nekazaritzaren eta kooperatiben arloko hiru pertsona handi ezagutu ahal izan nituen: Balentin Zamora, José Manuel Goikoetxea eta Alfonso Gorroñogoitia. Urtebete eman nuen Fundazioaren nominapean lanean. Ondoren, Euskadiko Nekazari-elikagaien Kooperatiben Federazioak kontratatu ninduen, gaur egunera arte.

Labur esanda, hori izan da Fundazioaren lana bere historian zehar. Alegia: sektore edo jarduera batean arreta jartzea; hura eguneratzea, egituratzea eta egokitzea; eta irtetea eta sektoreak edo jarduerak berak autokudeatzen uztea. Antzekoa egin zen EHNE nekazarien sindikatuarekin eta Lorra kooperatibarekin. Beste lerro paralelo bat ikasketa-bekak izan dira; bekei dagokienez, erakundeekin izandako politika berari jarraitu izan dio Fundazioak.

Handik urte batzuetara (1992ko abenduan), José Mari Zeberio berriro deitu zidan. Orduan, Fundazioaren Patronatuko kide izatea proposatu zidan. Gaztea eta eskarmenturik gabekoa nintzen, baina erronka eta ohore bat izan zen erakunde haren gobernu-organoan izatea, han parte hartzen zuen jende ospetsuarekin batera. Orduan izan nuen Fundazioaren barruko kontuen berri, eta zer lan handi eta isil egiten ari zen jakin nuen.

Mary Iturriagak eta Juan Escobalek hunkitu ninduten bereziki. Maryk edozein erronkari aurre egiteko indarra eta adorea zeuzkan. Bestalde, Juan pertsona zuhurra zen, eta ondo ezagutzen zuen abeltzainen idiosinkrasia; denon arreta eztabaidara erakartzeko eta akordioa lortzeko gai zen. Beste patrono historiko batek ere harritu ninduen: Luis Gorroño behatzaile handi eta analista trebeak. Xabier Elguezabalek, Dunixi Gabiñak eta beste patrono batzuek ere nekazaritza-sektoreaz neukan ikuspegia aberastu zuten, ikuspuntu teknikitik zein giza ikuspuntutik.

Gerora, Patronatuan sartu ziren beste pertsona batzuek (besteak beste, Ana Dudkievicz, Sabino Irulegi, Celes Aja, Lurdes Nafarrate eta Salvador Gorostola) Fundazioaren eta nire ikuspegia, jarduera-eremua eta hausnarketak zabaltzen lagundu zuten”.

Euskadiko baserrien nekazaritzak eta abeltzaintzak beste orientazio bat behar zuten. Beraz, 1983tik 1985era bitartean, lanbide-elkarteak sortu ziren produkzio-esparru bakoitzean (behi-esnea, ardi-azienda, piriniarra, baratzezaintza, frutikultura, kooperatibak, pentsu konposatuaren egileak, etab.).

Garai hartan bertan (1983, 1984, 1985 eta 1986), Fundazioak kudeaketa teknikoa eta ekonomikoa Bizkaian ezartzea finantzatu zuen, Karrantzako Guvac eta Markinako Miba kooperatiben egituran oinarrituz. Behi-esnearen lehen ustiategiei aholku teknikoa eta ekonomikoa ematen hasi zen, eta lehen emaitzak lortu ziren esparru horretan. Ekarpen horrek argitasuna eman zien ekonomiaren eta eraginkortasun teknikoaren arloko emaitzei, eta erabakigarriak izango ziren behi-esnearen ustiategietan zer-nolako hobekuntzak egin behar ziren jakiteko. 1983tik 1985era bitartean, behi-esnearen ustiategien kudeaketa teknikoa eta ekonomikoa egiten zen aldi berean, denboraldi horretan sortutako lanbide-elkarteak (lehenago aipatuak) bildu zituen erakunde bat eratu zen. Hala sortu zen Lorra Kooperatiba Elkarte, 1985eko azaroan, Bizkaiko nekazaritza- eta abeltzaintza-sektoreari zerbitzu teknikoak eta ekonomikoak emateko.

Gaur egun, Bizkaiko zerbitzu tekniko eta ekonomikoen erreferentzia da Lorra. Lurraldeko nekazari eta abeltzain guztien topagunea da, eta nekazari eta abeltzain gazteen ekimen berriak jasotzen ditu. Gainera, nekazari eta abeltzainen elkarteen eta Herri Administrazioen arteko elkarrizketa-gunea da.

Fundazioa orduko erakunde guztiek proiektuan parte har zezaten ahalegindu zen, eta finantza-laguntza eman zuen proiektuak aurrera egin zezan; hori erabakigarria izan zen Bizkaiko nekazari eta abeltzainak zerbitzu tekniko eta ekonomikoak jasotzen hasteko. Halaber, 1987an, Bizkaiko Foru Aldundiak Fundazioak hasitako proiektuarekin bat egitea eta zerbitzuak finantzatzen laguntzea onartu zuen, zerbitzu horiek Bizkaiko nekazari eta abeltzaintzat zer garrantzitsuak ziren ikusita.

Nekazari eta abeltzain guztiek eta orduko gizarte-eragileek parte hartzea lortu zen, ekimen berriak aintzat hartu ziren, eta hainbat arlotan jarduten ziren teknikariei parte hartzeko aukera eman zitzaien. Horrela eratu zen erakundea, helburu jakin batekin: Bizkaiko nekazaritza eta abeltzaintza garatzeko zerbitzu teknikoak eta ekonomikoak eskaintzea, eta elikagaien segurtasuna eta kalitatea, ingurumena eta animalien ongizatea babesten duten produktu lehiakorrak sortzea. Horri esker, gaur egun Bizkaiko eta Euskadiko kontsumitzaileek ezaugarri horiek dituzten produktuak eskura ditzakete.

Juan Luis Laskurain hamabost urtez izan da Munduko Landagunearen presidentea, eta haren arabera, Fundazioa funtsezkoa izan zen Munduko Landagunearen urterik zailenetan; beraz, eskerrak ematen dizkio Fundazioari. Liburu honek landa-sektoreari eta landa-kolektiboari zor zaiona aitortzea eta haiek balioestea espero du.



BESTE LEKUKOTASUN BATZUK

Lehen garaiko testigantza asko desagertu egin dira. Garai hartatik, aktek eta dokumentuek eman digute lekukotasunen berri, protagonistek beraiek esandakotik ezer gutxi iritsi baitzaigu.

Fundazioa sortu baino lehen Mary ezagutu zuten eta harekin lotura zuten pertsonen testigantzak jaso ditugu. Agustín Ugartek edo Cristinak, Irungoak, eman digute haren berri, bai eta Ander Manterolak eta Fundazioko patrono izandako beste pertsona batzuek ere.

Besteak beste, hauek dira lekukotasuna eman duten pertsonak: Manuel María Urrestarazu, presidenteorde ohia; Xabier Elgezabal eta Bittor Kapanaga, idazkari ohiak; Martin Orbe, batzordekide ohia; eta Luis Gorroño, Fundazioan hirurogeiko hamarkadaren amaieran sartu zena eta oraindik ere Patronatuko Batzordean dagoena.

Lekukotasun horiek guztiak laburbilduz, esan dezakegu Mary oso pertsona bitxia zela. Sinesmen katoliko sakonei jarraituz jarduten zuen, Euskadi eta euskara maite zituen, eta ahal izan zuen guztia eman zuen, bere testigantza pertsonalaren eta bizitza-testigantzaren bidez, eta baliabide asko erabili zituen baserritarrei eta bere inguruneko eta munduko leku askotako pertsona behartsuei laguntzeko.

Izaera sortzailea eta sakabanatua zuen, eta gauza gehiegi egin nahi zituen aldi berean. Hala ere, arazoen erantzuna Fundazioaren, Osabide elkartearen eta beste ekimen batzuen bidez instituzionalizatzen saiatu zen. Aurrera jotzen zuen beti, zailtasunak gaindituz.

Fundazioari dagokionez, egin zuen eta egiten ari den ahalegina azpimarratu behar da: baserritarrei eta nekazaritza-teknikariei prestakuntza ematea, euskal nekazarien errealitateari buruzko ikerketak egitea, ekimen aitzindariari laguntzea, eta batez ere, elkartegintzaren alderdi guztiak (sindikatuak, kooperatibak, aholkularitza teknikoa, eta elkartasuna eta nazioarteko lankidetzak) sustatzea. Txikia izan arren garaietara egokitzen saiatu den erakundea izan da Fundazioa, eta aitzindaria izan da arazo eta konponbideei buruzko ikuspegi orokorra izaten.

AURREKONTUEN ETA FUNDAZIO FUNTSAREN BILAKAERA

Historikoki eta 1999ra arte (orduan egin zen Fundazioaren ondasun guztien inbentarioa), eraikinek eta lurrek osatzen zuten fundazio-funtsa; bai Fundazioaren jabetzakoak zirenek edo hasieratik harenak izan zirenek, bai urteak joan eta urteak etorri erosi zituenek (bereziki, Abornikanon).

1992tik aurrera, Madariaga baserriaren lurrak Eusko Jaurlaritzari saldu ostean, funts likidoak oso handiak izan ziren Fundazioaren ondarean, eta horri esker, likidezia handia izan zuen bere jarduerak egin ahal izateko.

1999an, kontabilitate-balioa eman zitzaion Fundazioaren ondareari, eta hortaz, fundazio-funtsak zer bilakaera izan duen zehaztu daiteke.

Fundazio-funtsa eta urteko aurrekontuak garrantzitsuak izaten hasi ziren: funtsa 3.136.000 eta 4.217.000 € bitartekoa da, eta ohiko aurrekontua 45.000 €-koa zen 2000an eta hurrengo urteetan, eta 160.000 € ingurukoa izan da azken urte hauetan.

Urteko guztizko aurrekontuak asko aldatu dira azken hamabi urteetan; alde batetik, Neikerrekin batera emandako beken ondorioz, eta beste batetik, Deustuko Unibertsitatearekin, Munduko Landagunearekin eta Bizkaiko Foru Aldundiarekin elkarlanean garatutako ikerketa- eta kooperazio-proiektuen ondorioz.

Gizarte Funtsa ere aldatu da, lurrak saltzean lortutako plusbalioengatik edo finantza-aktiboen balioaren aldaketagatik.





FUNDAZIOAREN
ETORKIZUNA

José Mari Zeberioaren hitzetan, Patronatuko Batzordeak uste du Fundazioak ondo dakiela bere jarduera-nitxoak zein diren, eta datozen urteetan haietako bakoitzean arituko dela, intentsitate handiagoz edo txikiagoz.

Labur-labur esatearren, hauek dira Fundazioaren jarduera-lerroak:

- ✿ Nekazariak eta nekazaritza-teknikariak prestatzea, garapen-zentroekin lankidetzan.
- ✿ Nekazaritza-gaiei buruzko ikerketa, tokiko zein nazioarteko esparruetan.
- ✿ Nekazaritza-elkarteei laguntzea, tokiko esparruan eta garapen-bidean dauden herrialdeetan.
- ✿ Gizarte-arloko erakunde eta elkarteetan parte hartzea.
- ✿ Gure inguruko eta konfiantzazko GKE-en garapen-programei unean uneko laguntza ematea.

Fundazioak oso positiboki balioesten du berrogeita hamar urte hauetan egin duen lana, ikerketaren arloan, profesionaliei eta teknikariei prestakuntza ematen, elkartze-ekimenei laguntzen, eta nazioarteko nekazaritza-elkartasuna erakusten.


Erakundeek sektorea albo batean uzten zuenean eta, horren ondorioz, sektorea guztiz galduta eta atsekabetuta zegoenean, Fundazioak aukerak bilatzeari ekin zion, bere baliabideak erabilita. Euskadiko nekazaritza-sektoreak erakundeetara jotzeko aukera izan duenean, Fundazioak nazioartera bideratu ditu bere urratsak, tokiko esparrua baino desegituratuagoa eta behartsuagoa baita.

Fundazioak ez du betiko irauteko asmorik. Nekazaritza-sektoreari laguntzeko asmoa baino ez du, eta horretarako, beharrezkoak diren eta eskura dituen baliabideak erabiliko ditu, ahalik eta zuzentasun eta eraginkortasun handienaz.

Dunixi Gabiñaren ustez, garapen-bidean dauden herrialdeetan nekazaritza-sektoreari laguntzen jarraitu beharko luke Fundazioak. Horrexek izan beharko luke Fundazioaren jarduera nagusietako bat, eta horrez gain, Euskadin proposatzen diren ekimen interesgarriei ere lagundu beharko lieke.

Baina jabetu behar dugu hemen finantziazio-iturriak aurki daitezkeela oraindik, euskal nekazari eta abeltzaintzat interesgarriak diren proposamenak finantzatzeko, nahiz eta lehen bezain ugariak izan ez.





FUNDACIÓN ITURRIAGA DAÑOBEITIA FUNDAZIOA

FUNDACIÓN ITURRIAGA DAÑOBEITIA FUNDAZIOA

ANEXO: ALDIAREN AZTERKETA ESTRUKTURAL,
PRODUKTIBO ETA SOZIOLOGIKOA

SARRERA

IDF fundazioari bere berrogeita hamargarren urteurrenean eskainitako lanaren gehigarri hau ez da aldagaiak aplikatuz eta teknika konplexuak erabiliz egindako Euskadiko lehen sektorearen 1962-2009 epealdiko estatistika-txosten oso bat, eta ez du horretarako asmorik ere.

Gure xedea izan da, euskal baserriaren alderdi egiturazko eta sozialen zertzelada bat ematea, zenbakitan hori bai, landare- eta abeltzaintza-ustiategiei buruzko xehetasun gutxi batzuk erantsiz. Horrela, argitalpen mota aintzat hartuta, baserrien egiturari eta antolamenduari buruzko azterlanak lehenetsi ditugu, eta denboran zehar izan duten bilakaeraren berri eman dugu, adierazle kuantitatiboak eta erraz ulertzeko moduko ehunekoak erreferentziazat hartuta.

Datozen ataletan jaso ez baditugu ere, ezin dugu ahaztu Euskadiko ohiko nekazaritza-ustiategiez gain badirela horiek osatzen dituzten beste jarduera batzuk ere (basogintzakoa eta nekazaritza-produktuak eraldatzekoa adibidez), eta, turismoarekin, ostalaritzarekin eta aisialdiko jardurekin batera, etorkizun oso interesgarria eskaintzen dutela.

Lan hau egiteko, nekazaritza-erroldak hartu ditugu oinarrizko elementu gisa, hala nola, 1962., 1972., 1982., 1989., 1999. eta 2009. urteetakoak. Zenbait kasutan, aldagai batzuk sailkatu egin behar izan ditugu, hainbat definizio izaki, kasu batzuetan nolabaiteko aldaketak sortu baitituzte eta emaitza anormal samarrak eman.

NEKAZARITZA USTIATEGIEN EGITURA

KOPURUA ETA TAMAINA

Euskadiko nekazaritza-ustiategien kopurua % 75 txikitu da, 1962-2009 epealdian. Bitarte horretan, 65.876tik (1962an) 16.554ra (2009an) jaitsi zen ustiategi kopurua. **1. TAULA.**

Jaitsiera hori erkidegoko hiru lurraldeetan gertatu zen: Bizkaian gehien (% 79), Araban hurrengo (% 74) eta Gipuzkoan gutxien (% 69). **1. TAULA.**

Jaitsiera horiek, hala zenbakitan nola ehunekotan, islatu egin dira ustiategi horien guztizko azaleran ere, nahiz eta kopuru txikiagoak eman: Euskadin % 60, Araban % 61, Bizkaian % 64 eta Gipuzkoan % 55. **1. GRAFIKOA.**

Logikoa denez, ikusi ditugun ataletan bildutakoez bestelako irizpideei jarraitzen die ha/ustiategia adierazleak. Euskadiko ustiategien batez besteko azalera 9,9 ha-tik (1962an) 15,8 ha-ra (2009an) handitu zen: Araban 10,3 ha, Bizkaian 4,0 ha eta Gipuzkoan 4,2 ha. **1. GRAFIKOA.**

USTIATEGI-BURUAK

1989-2009 epealdiko datuak aztertu ditugu, aurreko erroldetako adinen arabera bitarteak desberdinak zirelako eta aldagai hori sexuen arabera bereizita ez zegoelako.

Euskadiko ustiategien kopuruak ere aipatutakoen antzeko beherakadak izan ditu, eta 24.170etik (1989an) 14.956ra (2009an) izatera pasatu da. Ehunekotan, % 38koa da murrizketa. **2. TAULA.**

Halere, adin-tarteen arabera, murrizketok handiagoak dira < 20 urteko eta 25-34 urteko tarteetan, % 77koa eta % 61ekoa baitira, hurrenez hurren; >= 65 urteko eta 45-54 urteko tarteetan, berriz, ez dira hain nabarmenak, % 22 eta % 30 txikitu baitira, hurrenez hurren. **2. TAULA.**

Bada aipatzeko moduko gertaera bat: ustiategi-buru emakumeen kopuruak gora egin du, % 17,3tik (1989an) % 32,8ra (2009an), hain zuzen. 45-54 urteko bitartea da gehien hazi dena: % 45, alegia. **2. TAULA eta 2 B GRAFIKOA.**

Aztertutako epealdian, Euskadin ustiategi-burutzat hartutako pertsonen batez besteko adinak gora egin du gizonetan: 55,0 urtetik (1989an) 56,5 urtera (2009an). Emakumeetan are handiagoa izan da igoera: 57,3 urtetik (1989an) 58,4 urtera (2009an). **2 A GRAFIKOA.**

Batez besteko adinak lurralde historikoen arabera hartzen baditugu aintzat, 1989-2009 epealdian beti, ikusiko dugu zahartzerik bizkorrena Gipuzkoan gertatu dela: gizonetan 2,59 urtekoa eta emakumeetan 1,63 urtekoa. Aitzitik, 2009an Bizkaian lortu du batez besteko adinak balio eguneraturik handiena: 57,6 urtekoa gizonetan eta 59,4 urtekoa emakumeetan. Araba dugu daturik txikienak eman dituen lurraldea: gizonen adina 0,61 urte hazi da eta emakumeena 0,68. 2009ko batez besteko adina, berriz, 53,0 eta 56,4 urtekoa izan da, hurrenez hurren, gizonetan eta emakumeetan. **2 A TAULA.**

I LUR-EDUKITZA I

Lur-edukitza ehunekotan adierazi dugu, lur guztiak (1962-1999 epealdikoak) eta ENA (erabilitako nekazaritza-azalera, 1982-2009 artekoa) aintzat hartuta.

Euskadiko titulartasunari dagokionez ikusi ahal izan dugu, jabetzako lurretan ez dela ia aldaketarik gertatu ehunekoetan: % 83,3koa zen 1962an eta % 81,9koa 1999an. Lurraldez lurralde ere berretsi egin da joera hori, nahiz eta aldeak dauden: Araban % 11,6ko beherakada gertatu da; Bizkaian eta Gipuzkoan, berriz, % 6,0ko eta % 7,3ko igoerak jaso dira, hurrenez hurren. **3. TAULA eta 3. GRAFIKOA.**

Jabetzako lurren ENAri buruzko ehunekoek erakusten dutenez, lur kopuru osoarekin alderatuta alde handiak daude bai Euskadin (% 62,9 1982an eta % 57,7 2009an, bai hiru lurralde historikoetan (Araban % 52,0 eta % 43,9; Bizkaian % 69,5 eta % 64,0 eta Gipuzkoan % 80,3 eta % 77,3). **3. TAULA eta 3. GRAFIKOA.**

Aurreko ataletan bezalaxe, lur guztiak aintzat hartuta, errentamendu-sistemetan eta bestelako erregimenetan ez da ia alderik jaso Euskadin (% 12,4 eta % 13,4 errentamenduan eta % 4,3 eta %4,7 beste erregimen batzuetan). Dena den, lurraldeen artean badira ezberdintasunak: Araban +% 72 eta +% 4,3; Bizkaian -% 1,5 eta -% 4,4 eta Gipuzkoan -% 6,6 eta -% 0,8. Datu horiek 1962-1999 bitartekoak dira. **3. TAULA eta 3. GRAFIKOA.**

Adierazle moduan errentan dagoen ENAren ehunekoa hartzen badugu, Euskadikoarekin alderatuta, azalera osoan ikusitako bera gertatzen da: konparazioan ehunekoa hazi egin da, baina behera egin du apur bat: % 34koa zen 1982an eta % 27,6koa 2009an. **3. TAULA eta 3. GRAFIKOA.**

Horrek eragina du, jakina, ENA lurrak beste jabetza-erregimen batzuetan edukitzeari dagokionez: Euskadin % 2,8 hazi ziren 1982an eta % 14,7 2009an. Lurraldeetan ere gorakadak egon dira: % 11,6koa Araban, % 17,7koa Bizkaian eta % 7,9koa Gipuzkoan. **3. TAULA eta 3. GRAFIKOA.**



LANDARE
USTIAPENENKO LURRAK

Belarkien atalak (familia-ortuak ere barne hartuta) du Euskadiko lur landuen azalerarik handiena, nahiz eta bilakaera negatiboa izan den: 117.822 ha zeuden 1962an eta 62.056 ha 2009an. **4. TAULA eta 4. GRAFIKOA.**

Beherakada hori islatu egin da hiru lurraldeetan ere, nahiz eta Euskadiko kopuruarekin alderatuta, Araban gora egin duen: % 23, alegia. Bizkaian eta Gipuzkoan atzera egin du: % 15 eta % 8. **4. TAULA.**

Fruta-arboletan, berriz, Euskadiko azalerak behera egin du: 7.452 ha-tik (1962an) 2.110 ha-ra (2009an). Dena delarik ere, beherakada Araban baino ez da islatu, % 85eko murrizketa izan baitu Euskadiko ehuneko osoarekiko. Bizkaian eta Gipuzkoan, ordea, gorakadak izan dira, are ikuspegi kuantitatibotik ere: % 31koa eta % 53koa, hurrenez hurren. **4. TAULA eta 4. GRAFIKOA.**

Logikoa denez, belardi iraunkorretarako azalerek gora egin dute Euskadin: 71.573 ha ziren 1962an eta 93.105 2009an. **4. TAULA eta 4. GRAFIKOA.**

Lurralde guztietan hazi badira ere belardi iraunkorren azalerak, Arabak baino ez du lortu Euskadikoa baino ehuneko handiagoa: % 11koa alegia. Bizkaian eta Gipuzkoan txikitu egin dira apur bat: -% 4 eta -% 7, hurrenez hurren. **4. TAULA.**

Baso-arbolen atalean, Euskadiko azalera ez da aldatu: 294.223 ha-koa zen 1962an eta 294.223 ha-koa 1999an. Esan beharra dago, 2009ko erroldan jasotako datuan (67.077 ha-koan) ez dagoela jasota merkataritzakotzat jotzen ez diren baso-arbolen espezieen azalera. Kasu horretan, lurraldekako bilakaerari erreparatuta ikusten da, Araban eta Bizkaian behera egin duela azalerak, baina Gipuzkoako hazkundeak konpentsatu egin duela. **4. TAULA eta 4. GRAFIKOA.**

ABELTZAINZA

Euskadiko behi-azienden kopuruak behera egin du nabarmen (-% 24): 179.201 ziren 1962an eta 136.246 2009an. **5. TAULA eta 5. GRAFIKOA.**

Lurraldeka, Araban gora egin du behi-azienden kopuruak, % 21 alegia, eta Euskadi osoari begira % 10,2ko gorakada izan du. Aitzitik, Bizkaian nahiz Gipuzkoan, buru kopuru handiagoa izanik ere, hurrenez hurren % 37ko eta % 30eko beherakadak gertatu dira. Euskadiko osoari begira ere txikitu egin dira haien ehunekoak: -% 7,2 eta -% 2,8, hurrenez hurren. 1962-2009 epealdiko datuak dira horiek. **5. TAULA.**

Ardi-aziendei dagokienez, goranzko joera nabaritu da Euskadin: 194.072 buru zeuden 1962an eta 272.167 2009an. Horrela, bada, % 40ko hazkundera gertatu da. **5. TAULA eta 5. GRAFIKOA.**

Baina, 1962-2009 epealdi berari erreparatuz, hazkunde hori ez da Arabako ardi-azienden kopuruan islatu, % 37 egin baitu behera. Dena den, Bizkaiko (% 85ekoa) eta Gipuzkoako (% 155ekoa) gorakadek konpentsatu egin dute jaitsiera. Era berean, Euskadiko ardi-azienda guztien gaineko tasek behera egin dute Araban (% 29,3). Bizkaian eta Gipuzkoan, ordea, hazi egin dira: % 5,8 eta % 23,5, hurrenez hurren. **5. TAULA.**

Txerri-aziendetan, ekoizpen-ziklo bereziak izanik ere, jaitsierak gertatu dira Euskadiko buru kopuruan: 49.153 ziren 1962an eta 16.092 2009an. Ehunekotan, % 67koa izan da murrizketa. **5. TAULA eta 5. GRAFIKOA.**

1962-2009 epealdiko beherakada hori Araban (nahiz eta beti izan den animalia kopuru handieneko lurraldea), Bizkaian eta Gipuzkoan ere islatu da: -% 71koa izan da Araban, -% 80koa Bizkaian eta -% 19koa Gipuzkoan. Euskadiko ordezkariaren ehunekoei erreparatuz, Araban eta Bizkaian % 8,0ko eta % 9,3ko beherakadak gertatu dira; Gipuzkoan, oster, % 7,3 egin du gora. **5. TAULA.**

1. TAULA: NEKAZARITZA USTIATEGIAK EUSKADIN
(Kopurua/Azalera)

		ARABA		BIZKAIA		GIPUZKOA		EUSKADI	
		Ustiategiak	ha	Ustiategiak	ha	Ustiategiak	ha	Ustiategiak	ha
1962	Kop	14.064	294.951	32.941	190.809	18.871	169.184	65.876	654.944
	Euskadiko %-a	21,3	45,0	50,0	29,1	28,6	25,8	100,0	100,0
	I100	100	100	100	100	100	100	100	100
1972	Kop	9.480	292.784	24.261	161.053	12.456	159.601	46.197	613.438
	Euskadiko %-a	20,5	47,7	52,5	26,3	27,0	26,0	100,0	100,0
	I100	67	99	74	84	66	94	70	94
1982	Kop	7.832	275.123	21.016	169.983	11.621	146.749	40.469	591.855
	Euskadiko %-a	19,4	46,5	51,9	28,7	28,7	24,8	100,0	100,0
	I100	56	93	64	89	62	87	61	90
1989	Kop	5.971	180.100	12.816	128.607	8.597	127.389	27.384	436.096
	Euskadiko %-a	21,8	41,3	46,8	29,5	31,4	29,2	100,0	100,0
	I100	42	61	39	67	46	75	42	67
1999	Kop	5.281	205.446	11.173	134.562	8.249	132.451	24.703	472.459
	Euskadiko %-a	21,4	43,5	45,2	28,5	33,4	28,0	100,0	100,0
	I100	38	70	34	71	44	78	37	72
2009	Kop	3.691	115.637	7.064	69.482	5.799	76.702	16.554	261.822
	Euskadiko %-a	22,3	44,2	42,7	26,5	35,0	29,3	100,0	100,0
	I100	26	39	21	36	31	45	25	40


Iturria: Geuk egina. Nekazaritza-errolden eta Eustaten datuak.

2. TAULA: USTIATEGI BURUAK
(Adina eta sexua)


			1989			1999			2009		
			Kop.	%	I100	Kop.	%	I100	Kop.	%	I100
EUSKADI	< 25 urte	Gizonak	195	87,1	100	118	87,4	61	47	90,4	24
		Emakumeak	29	12,9	100	17	12,6	59	5	9,6	17
		Guztira	224		100	135		60	52		23
	25-34 urte	Gizonak	1.310	87,7	100	857	81,1	65	462	79,1	35
		Emakumeak	184	12,3	100	200	18,9	109	122	20,9	66
		Guztira	1.494		100	1.057		71	584		39
	35-44 urte	Gizonak	2.838	84,7	100	2.281	78,1	80	1.336	72,7	47
		Emakumeak	511	15,3	100	639	21,9	125	501	27,3	98
		Guztira	3.349		100	2.920		87	1.837		55
	45-54 urte	Gizonak	4.047	84,6	100	3.266	73,6	81	2.298	68,2	57
		Emakumeak	736	15,4	100	1.174	26,4	160	1.070	31,8	145
		Guztira	4.783		100	4.440		93	3.368		70
	55-64 urte	Gizonak	6.429	83,3	100	3.605	74,4	56	2.590	65,8	40
		Emakumeak	1.288	16,7	100	1.243	25,6	97	1.345	34,2	104
		Guztira	7.717		100	4.848		63	3.935		51
	>= 65 urte	Gizonak	5.178	78,4	100	5.833	72,5	113	3.351	64,7	65
		Emakumeak	1.425	21,6	100	2.209	27,5	155	1.829	35,3	128
		Guztira	6.603		100	8.042		122	5.180		78
	Adin guztiak	Gizonak	19.997	82,7	100	15.960	74,4	80	10.084	67,4	50
		Emakumeak	4.173	17,3	100	5.482	25,6	131	4.872	32,6	117
		Guztira	24.170		100	21.442		89	14.956		62

Iturria: Geuk egina. Nekazaritza-errolden eta Eustaten datuak.


1. GRAFIKOA: USTIATEGIEN BATEZ BESTEKO AZALERA
(Ha/ustiatagia)



2A. GRAFIKOA: BATEZ BESTEKO ADINA
(Ustiategi-buruak)



2B. GRAFIKOA: EHUNEKOA
SEXUAREN ARABERA (Ustiategi-buruak)
EUSKADIKO GUZTIZKOA




3. TAULA: LUR EDUKITZA
(Ehunekotan)

		1962		1972		1982		1989		1999		2009	
		Guztira	ENA	Guztira	ENA	Guztira	ENA	Guztira	ENA	Guztira	ENA	Guztira	ENA
Araba	Jabetzan	83,7		27,1		81,1	52,0	80,9	58,2	72,1	49,9		43,9
	Errentan	13,2		17,5		17,7	43,6	15,1	37,0	20,4	39,1		40,1
	Bestelako erregimenetan	3,1		55,3		1,2	4,4	3,9	4,8	7,4	11,0		16,0
Bizkaia	Jabetzan	80,3		80,6		84,7	69,5	88,3	70,8	86,3	70,9		64,0
	Errentan	10,9		10,0		12,5	29,6	11,2	28,1	9,4	20,6		17,3
	Bestelako erregimenetan	8,8		9,4		2,8	1,0	0,5	1,2	4,4	8,6		18,7
Gipuzkoa	Jabetzan	86,2		92,1		89,6	80,3	92,4	85,0	93,5	85,0		77,3
	Errentan	12,6		7,5		8,6	18,6	6,6	14,0	6,0	13,9		13,7
	Bestelako erregimenetan	1,3		0,5		1,8	1,1	1,0	1,0	0,5	1,1		9,0
EUSKADI	Jabetzan	83,3		58,7		84,3	62,9	86,0	68,2	81,9	63,3		57,7
	Errentan	12,4		12,9		13,9	34,3	11,8	28,9	13,4	28,6		27,6
	Bestelako erregimenetan	4,3		28,4		1,8	2,8	2,2	2,9	4,7	8,1		14,7

Iturria: Geuk egina. Nekazaritza-erroldeen eta Eustaten datuak.

3. GRAFIKOA: LUR EDUKITZA
(EUSKADI - %-tan)




4. TAULA: LANDARE USTIAPENeko LURREN BANAKETA

		1962		1972		1982		1989		1999		2009	
		ha	Eusk. %-a	ha	Eusk. %-a	ha	Eusk. %-a	ha	Eusk. %-a	ha	Eusk. %-a	ha	Eusk. %-a
Araba	Belarkiak	80.760	69	84.994	80	68.713	86	64.971	90	64.652	93	56.935	92
	Fruta-arbolak	6.681	90	251	23	343	25	371	20	291	11	111	5
	Belardi iraunkorrak	12.394	17	21.604	23	17.395	20	13.180	15	37.168	28	25.915	28
	Baso-arbolak	129.948	44	128.659	41	118.957	40	131.328	42	111.213	38	11.916	18
Bizkaia	Belarkiak	22.353	19	11.925	11	4.789	6	4.152	6	1.804	3	2.647	4
	Fruta-arbolak	556	7	276	25	713	53	484	26	740	29	811	38
	Belardi iraunkorrak	29.411	41	36.505	39	39.478	44	38.564	43	49.148	37	34.591	37
	Baso-arbolak	94.051	32	101.139	32	98.288	33	96.019	31	91.407	31	23.677	35
Gipuzkoa	Belarkiak	14.709	12	8.784	8	6.822	8	2.718	4	3.065	4	2.474	4
	Fruta-arbolak	215	3	564	52	297	22	1.033	55	1.512	59	1.188	56
	Belardi iraunkorrak	29.768	42	36.591	39	31.991	36	37.397	42	46.428	35	32.598	35
	Baso-arbolak	70.224	24	81.439	26	78.545	27	85.093	27	91.414	31	31.484	47
EUSKADI	Belarkiak	117.822	100	105.703	100	80.324	100	71.841	100	69.521	100	62.056	100
	Fruta-arbolak	7.452	100	1.091	100	1.353	100	1.888	100	2.544	100	2.110	100
	Belardi iraunkorrak	71.573	100	94.700	100	88.864	100	89.141	100	132.744	100	93.105	100
	Baso-arbolak	294.223	100	311.237	100	295.790	100	312.440	100	294.034	100	67.077	100

Iturria: Geuk egina. Nekazaritza-erroldeen eta Eustaten datuak.

4. GRAFIKOA: LANDARE EKOIZPENAK EUSKADIN
(Ha-tan)




5. TAULA: ABELTZAINTZA

		Araba			Bizkaia			Gipuzkoa			EUSKADI		
		Behi-azienda	Ardi-azienda	Txerri-azienda	Behi-azienda	Ardi-azienda	Txerri-azienda	Behi-azienda	Ardi-azienda	Txerri-azienda	Behi-azienda	Ardi-azienda	Txerri-azienda
1962	Kop.	31.028	103.147	31.107	77.841	35.098	12.208	70.332	55.827	5.838	179.201	194.072	49.153
	Euskadiko %-a	17,3	53,1	63,3	43,4	18,1	24,8	39,2	28,8	11,9	100,0	100,0	100,0
	I ₁₀₀	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100
1972	Kop.	23.749	72.654	63.213	70.439	22.616	18.916	63.761	40.515	34.975	157.949	135.785	117.104
	Euskadiko %-a	15,0	53,5	54,0	44,6	16,7	16,2	40,4	29,8	29,9	100,0	100,0	100,0
	I ₁₀₀	77	70	203	90	64	155	91	73	599	88	70	238
1982	Kop.	26.388	86.689	36.950	72.690	38.374	12.740	63.742	88.513	24.912	162.820	213.576	74.611
	Euskadiko %-a	16,2	40,6	49,5	44,6	18,0	17,1	39,1	41,1	33,4	100,0	100,0	100,0
	I ₁₀₀	85	84	119	93	109	104	91	159	427	91	110	152
1989	Kop.	30.201	89.334	27.388	76.653	53.881	8.457	70.697	120.770	13.834	177.551	263.985	49.679
	Euskadiko %-a	17,0	33,8	55,1	43,2	20,4	17,0	39,8	45,7	27,8	100,0	100,0	100,0
	I ₁₀₀	97	87	88	98	154	69	101	216	237	99	136	101
1999	Kop.	40.367	87.086	20.367	69.795	69.742	10.260	69.166	157.068	7.440	179.328	313.896	38.067
	Euskadiko %-a	22,5	27,7	53,5	38,9	22,2	27,0	38,6	50,0	19,5	100,0	100,0	100,0
	I ₁₀₀	170	120	32	99	308	54	108	388	21	114	231	33
2009	Kop.	37.412	64.726	8.899	49.288	64.990	2.487	49.546	142.451	4.706	136.246	272.167	16.092
	Euskadiko %-a	27,5	23,8	55,3	36,2	23,9	15,5	36,4	52,3	29,2	100,0	100,0	100,0
	I ₁₀₀	121	63	29	63	185	20	70	255	81	76	140	33

Iturria: Geuk egina. Nekazaritza-errolen eta Eustaten datuak.

5. GRAFIKOA: ABELTZAINTZA EUSKADIN
(Buru kopurua)

















KREDITUAK:
2015eko ekaina

Argitaratzailea: Iturriaga-Dañobeitia Fundazioa
Egilea: Jesús Mari Osés Zurbano
Eranskina: Alberto García Sanz
Diseinua eta maketazioa: Diagonal Comunicación 360º
Inprimatzailea: Gráficas Irudi
Irudia: CC BY3.0-ES 2012/EJ/Irekia-Eusko Jaurlaritzza/Mikel Arrazola